



---

# JARDUEREN OROITZA TXOSTENA

---

2024

# aurkibidea

00	SARRERA	02
01	IKERLANAK	03
02	ZABALKUNDEA, ARGITALPENAK, KOMUNIKAZIOA ETA INFORMATIKA	04
03	BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK	06
04	<i>HERMES</i> PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA	07
05	GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA	10
06	EUSKARA	30
07	EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA	31
08	EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA	40
09	SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA	56
10	BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK	58
11	EMAITZEN BALORAZIOA	59
12	HIZKUNTZA- ETA GENERO-POLITIKEN ADIERAZPENA	61
13	2024an EGINDAKO JARDUERAK	62

## 00 SARRERA

Hurrengo orrialdeetan, Sabino Arana Fundazioak 2024an garatu dituen jarduera nagusien laburpena aurkeztuko dugu.

2023ko ekitaldian, hainbat urteurren esanguratsu ospatu ditugu gure Herriaren historian, hala nola ikurrinaren 130. urteurrena, 130. urteurrena Sabino Aranak Gamazadan parte hartu zuenetik, 75. urteurrena EAJ-PNVk bere burua alderdi demokrata-kristau gisa definitu eta euskal eskubide nazionalak aldarrikatzen dituen adierazpen politikoa egin zuenetik, 60. urteurrena Gerra Zibilaren ondoren Gernikan lehen Aberri Eguna (klandestinoak) ospatu zuenetik, edo 50. urteurrena Jesus Maria Leizaola Lehendakariak *muga* era klandestinoan zeharkatu zuenetik.

2024an, «Euskadi Think Next» berrikuntza politikoaren laborategiaren atalean, beste bost topaldi egin ditugu ospe handiko pertsonen eskutik, Euskadiren egungo eta etorkizuneko erronkei euskal gizartearekin batera heltzeko politika publikoak proposatu eta eztabaidatzeko helburu nagusiari oratuta.

Jardunaldi-mintegien bi ziklo handi horiekin batera, XXI. mendean puri-purian dauden gai eta gertaera guztien azterketan, eztabaidan eta hausnarketan murgildu gara: euskal ondasunak eta erakundeak gobernantza historian barrena eta horren etorkizuna; eraldaketa globalak eta etorkizuneko joera politiko eta ekonomikoak; egungo krisi humanitarioak; nola lagundu krisian dagoen mundu batean; emakumeak eta eliza Bizkaian: erronkak eta aukerak; gazte ekintzaileak; gure industriaren oraingo eta etorkizuneko erronkak, sexu-indarkeria digitala eta abar.

Ezin dugu ahaztu Miren Barandiaran Contreras historialariaren «*Publicaciones periódicas del Partido Nacionalista Vasco 1939-1975*» liburuaren argitalpena (ebook).

*Hermes* pentsamendu eta historia aldizkariari dagokionez, beste hiru ale argitaratu ditugu: 77.a (Xabier Arzalluz), 78.a (Euskal kulturaren erronkak) eta 79.a (Euskara).

Beste erakunde eta instituzio batzuekiko harremanen esparruan, gogoz parte hartzen dugu beste fundazio, memoria-elkarte, udaletako ordezkari, aldundi, ikastetxe, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Euskaltzaindia, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergo, Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoarekin eta abarrekin batera antolatutako ekitaldietan.

Halaber, Sabino Arana Sarien XXXV. edizioa antolatu dugu.

Hori guztia egin ohi dugu Sabino Arana Fundazioak eztabaidagune gisa duen ahalmena balioesteko. Gogoan izan behar da, bide horretan guztian, Sabino Arana Fundazioak askotariko gizataldeen aintzatespena eta babesa duela, bai gizarte-arloan, bai politika-arloan.

# 01 IKERLANAK

## Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945

Garrantzi handiko lan horren zeregin behinenak dira Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharra egitea da. Lan horren xede nagusia dugu Agirre lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak gerra zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

## Agiritegiko funtsen antolaketa Euskadiko Artxibo Historikoarentzat

- Ixaka Lopez de Mendizabal funtsa.
- Jon Bilbao.
- Sota familiaren funtsa.

## Gure funtsen antolaketa

- Bilbao Sakona familiaren artxiboa osatzen duten dokumentuak berrantolatzea.
- Honako artxibo hauen funtsak instalatzea, erregistratzea eta deskribatzea: Engrazio Aranzadi *Kizkitza* (Gipuzkoa), Jesus Ardanza Barrondo (Bizkaia), Elisabete Bizkarrategorra (Bizkaia), Joaquin Egia Unzeta (Ingalaterra), Jose Maria Abaurrea (Iruñea), Parisko Emakume Abertzale Batza, Fructuoso Perez Arrospide (Argentina), Biarrizko Emakume Abertzale Batza, Ander Arzelus *Luzear* (Gipuzkoa), Joseba Zinkunegi Arruti (Gipuzkoa) eta beste dokumentu-bilduma txiki batzuk (Esteban Bilbao, Xabier Landaburu eta abar).
- Ramon de la Sota Aburtoren funtsa.



## 02 ZABALKUNDEA ETA ARGITALPENAK

### Artikuluak DEIA egunkariarentzat

Euskal historian eta antropologian oinarriturik, askotariko gaiak jorratzen dituzten artikuluak prestatu ditugu DEIA egunkariarentzat 2024ko ekitaldian, *Historias vascas* deritzon sailean.

Amaitu berri den ekitaldian, ondokoen ekarpena jaso dute Sabino Arana Fundazioak eta Deia egunkariak: Jabier Aspuru (2), M<sup>a</sup> Eugenia Cruset, Mikel Gomez Gastiasoro, Aritz Ipiña Bidaurrazaga, Lazaro Echegaray eta Koldo Somokueto, Eduardo J. Alonso Olea, Jasone Acasuso Ariño, Peio J. Monteano Sorbet, Ernesto Garcia Fernandez, Jonan Zinkunegi Arzelus (2), Jose Angel Achón Insausti, Felicitas A. Lorenzo Villamor, Juan Jose Gonzalez eta Luis de Gezala, Josu Chueca Intxusta, Aritz F. Urchaga (2), Andres M<sup>a</sup> Urrutia, Xabier Ormaetxea, Joseba Agirreazkuenaga, Iñaki Zabaleta Gorrotxategi, Asier Romero Andonegi, Rosa Ortiz Pereiro, Mikel Mancisidor, Luis Bilbao Larrondo, Anton Perez Embeita eta Jon Penche Gonzalez, Antton Arrieta Valverde, Begoña Villanueva Garcia, Joseba Lopezortega, Iñaki Garcia Uribe, Luis de Gezala, Iñaki Berazategi, Alfonsina Leranoz, Aitor Goitia Kortazar, Roman Berriozabal Azpitarte, Gorka Martin Echebarria, Oier De la Quintana Hernández, Gorka Ortega Ortiz, Jon Ortiz Dominguez eta Rafa Arriola.

### Kolaborazioak irratietan

Era berean, kolaborazioak egin ditugu Onda Vascan, eta Bizkaia Irratian, Herri Irratian eta Euskadi Irratian noizean behin, historiari eta memoria historikoari lotutako gaien zabalkundeak egiteko asmoz, gai horiei buruzko ezagutza gizartean hedatzearen. Era berean, gure historialarien aholkularitza edo ekarpena eskatu duten irratiei edo hedabideei lagundu diegu.


### *Historias vascas*

Fundazioaren webgunean, Euskal Herriarekin eta bertako pertsona ospetsuekin zerikusia duten gertaera historikoen urteurrenak gogoratu ohi ditugu; agiritegiko dokumentu historikoak, argazkiak eta museoko piezak erakusten ditugu; liburutegiko eta hemerrotekako aleak ikusgai jarri; gaur egungo gizarteari interesatzen zaizkion gaiei buruzko hitzaldiak partekatzen ditugu; ikus-entzunezkoak; modu batera edo bestera Euskadiko historian eragina izan duten gai historiko eta antropologikoei buruzko prentsa-artikuluak eskaintzen ditugu; gure historialariek irratian egindako elkarrizketak...

Sailak hiru atal dauzka:

- Urteurrenak, biografiak, gertaerak eta pertsonaia historikoak, erreportajeak... Atal hori egunero «elikatzen» da, astelehenetik larunbatera, eta egun batzuetan bi albiste ere igotzen dira, lotutako argazki (mila inguru) eta Sabino Arana Fundazioak koordinatu edo kudeatu duen gaiari buruzko PDF eta/edo erreportaje-audioekin batera.
- DEIA egunkarian, *Historias vascas* sailean argitaraturiko erreportajeak.
- Bideoak: Euskal gizartea XXI. mendean. Atal honetan, historialariek eta hainbat arlotako adituek (antropologia, kultura, ekonomia, soziologia...) astero-astero ekartzen dizkigute Euskal Herriaren historiako gertakari garrantzitsuen eta protagonisten inguruko testuak. Gure kultura, nortasuna eta iragana eraikitzekeo ibilbidea.

## Argitalpenak



***Publicaciones Periódicas del Partido Nacionalista Vasco (1939-1975)***  
***Euzko Alderdi Jeltzalearen aldizkako argitalpenak (1939-1975)***  
**Miren Barandiaran**

Sabino Arana Fundazioak «Euzko Alderdi Jeltzalearen aldizkako argitalpenak (1939-1975)» deritzon liburua argitaratu du ebook bertsioan. Miren Barandiaran historialari eta Lazkaoko Beneditarren Artxiboko arduradunak egindako ikerlanaren emaitza da eta Euzko Alderdi Jeltzaleak diktadura frankistaren hamarkadetan sustatutako aldizkako argitalpenen ikuspegi orokorra eskaintzen du.

Euskaditik alde egin behar izan zuten erbesteratuek harrera-herrialdeetatik sustatu eta finantzatu zituzten argitalpenak aztertzen ditu liburuak, bai eta beste aldizkari batzuk ere, baliabideen prekarietatearen eta erregimenaren errepresio-aparatuen etengabeko mehatxuaren inguruabarrean, euskal lurraldean bertan

askatasunari eusten ahalegindu zirenak.

## 03 BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK (GRADUKOAK ETA GRADU-ONDOKOAK)

Gizarte-ikuspegiz den bezainbatean, gazteak prestatzeko konpromiso eta erantzukizunetik abiatuta, 2000. urtetik aurrera, Sabino Arana Fundazioak hainbat unibertsitatetako gradu eta gradu-ondoko ikasleen praktikak zuzentzen eta gainbegiratzen ditu, hain zuzen ere, unibertsitate hauetakoak: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea, Madrilgo CEU San Pablo Unibertsitatea, Europako Ikasketen Proiektua, Connecticut College (USA), Guadalajarako Unibertsitatea (Mexiko), Nazioarteko Bikaintasun Kanpua, Hezkuntza Esparrutik Lan Arlora Igarotzeko Beken Programa, Novia Salcedo Fundazioa... Praktika horiek agiritegian, museoan edo Fundazioaren Prentsa Bulegoan egiten dira.

Ildo honi dagokionez, esan beharra dago Humanitateen arloko etorkizuneko ia ehun profesionalak (horietako batzuk dagoeneko lan-munduan ari dira) prestakuntza jasotzen jarraitu dutela gure instalazioetan.

2024an, **10 bekadunek** jaso dute prestakuntza Sabino Arana Fundazioan; horietako zortzik museoan eta bik agiritegian.

Jardueren helburuak: gazteen beharrei erantzutea, gazte horien garapen pertsonalerako eta profesionalerako beharrezko tresnak izan ditzaten, eta lan-esperientziara hurbiltzen laguntzea.

## 04 HERMES

### PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

2024ko ekitaldian, *Hermes* aldizkariaren hiru zenbaki argitaratu ditugu, hain zuzen ere, 77., 78. eta 79. zenbakiak.

#### 77. zenbakia: *Xabier Arzalluz*

Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen *Hermes* pentsamendu eta historia aldizkariaren 77. zenbakia, bi hamarkadatan eta bi alditan EAJ-PNV alderdiaren Euzkadi Buru Batzarreko presidente eta euskal abertzaletasunaren buruzagi historikoa izan zen Xabier Arzalluz Antiarri eskainita dago, buruzagiaren heriotzaren bosgarren urteurrenean.



Aldizkarian, politika, kultura eta kazetaritza arloko pertsona ospetsuek gogoratu dute Euskadiko abertzaletasunaren eredu eztabaidaezin eta errepikaezina dela euskal buruzagi abertzale karismatikoa. Azkoitian (Gipuzkoa) jaio zen, 1932ko abuztuaren 24an, eta Galdakaon (Bizkaia) hil, 2019ko otsailaren 28an.

Iñigo Urkullu lehendakariaren esanetan, Arzalluz «pertsona errespetatuenetakoa, entzunenetakoa, maitatua eta, aldi berean, inbidiatuenetakoa izan zen gure historia berrian».

«Zalantzarik gabe, abertzale sinetsi eta oso-osokoa zen, beti errealitateari beha eta gure Herriaren benetako aukerez jabetua».

Era berean, Urkullu Lehendakariaren aburuz, «Xabier printzipio irmoko pertsona zen, eta, batez ere, pertsonen bizitza eta duintasuna defendatu zituen». Ildo horretan, «bakearen alde agertu zen hamaika bider».

Amaitzeko, Urkulluk esan zuenez, «Arzalluz iragana, oraina eta etorkizunaren arteko loturak lotzen jakin zuen liderra izan zen. 'Katea ez da eten' ideiarenean aurrendaria izan zen. Asaldura, krisi eta zirimola handiko garaietan, alderdiaren norabidea zuzen finkatzen eta Herri baten jomuga ikuspegi bikainez zehazten jakin izan zuen. Lider izateko gaitasuna erakutsi zuen, zuzen eta oker, jakina, gizakien ibilbide orotan gertatzen den moduan».

Bestalde, Andoni Ortuzar EAJ alderdiaren EBBko presidentek «abertzale, jeltzale, euskaltzale, jakintsu, irakasle, abokatu, hizlari sutsu eta, batez ere, lidertzat» definitu zuen.

Euzkadi Buru Batzarreko buruaren arabera, Xabier Arzalluz Euzko Alderdi Jeltzalean kide izana «gure alderdia osatzen duen katebegi baliotsua izan zen». Ortuzarren arabera, «horixe da Xabier Arzalluz definitzen duen ezaugarrietako bat: EAJren antzinako gidaritzaren eta etorkizuneko belaunaldien arteko katebegi indartsu eta sendoa izatea».

Amaitzeko, Ortuzarrek esan zuen Xabier Arzalluz «abertzale eta jeltzale eredugarria, erreferentziazkoa izan zela, eragin nabarmena izan duena harekin harremanetan ibili direnengan. Eta oihartzun handia izan duela politika eta alderdi jeltzalea ulertzeko moduan».

Urkullu eta Ortuzarrez gain, Ramon Mur, Juan Anton Zubikarai (1945-2015) eta Jose Felix Azurmendi kazetariak eta Xabier Barandiaran soziologoak ere parte hartu dute ale berezi horretan. Jorge Sanz Erañaren kolaborazio artistikoak osatu du Hermes aldizkariaren 77. zenbakia.

### 78. zenbakia: *Euskal kulturaren egungo kezkak*

Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen Hermes pentsamendu eta historia aldizkariak Euskal Herriko ertz eta eragile ugariako kulturaren arloan dabilzan protagonisten kezkak bildu ditu kulturari eskainitako 78. zenbakian. Protagonisten, musikarien, idazleen, dantzarien, abesbatza zuzendarien eta abarren iritziak jaso dira zenbaki horretan... Eta horien osagarri, Artium museoko zuzendariaren solasaldiak Euskal Herriko hainbat diziplinaren argazkia ematen digute. Artearekiko maitasuna zein etorkizunari baikor begiratzen dion inguruabarrari atxikitako gabeziak eta kezkak jorratuta.

Ondokoek parte hartu dute 78. zenbakian: Bingen Zupiria, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua XI. eta XII. legegintzaldietan; Alberto Urretxo, musikari eta sortzaile artistikoa; Iñaki Tolaretxipi, Landarbaso abesbatzaen zuzendaria; Igor Yebra, dantza klasikoko dantzari eta koreografoa; Eneko Sagardoi, aktorea; eta Luisa Etxenike idazlea. 78. ale honetan kolaboratzaileak. Bi kolaborazio historikok osatu dute azken zenbakiaren mamia: bata, Fernando Mikelarena historialariarena, Nafarroako indarkeria frankistari buruzkoa, eta bestea, Xabier Unanue legelariarena, Larrazabalgo zinari buruzkoa. Azkenik, Beatriz Herraek Vitoria-Gasteizko Arte Garaikidearen Euskal Museoko zuzendariari egin diote elkarrizketa.



Estatuan, artearen arloan eragin handiena duten 40 emakumeen artekotzat jo du Forbes aldizkariak. Marta Martin kazetariak elkarrizketatuta, Beatriz Herraek, Artiumek euskal kulturaren esparruan betetzen duen zeregina eta Gasteizko erabiltzaileekin nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako museoekin daukan harremana aztertu ditu.

### 79. zenbakia: *Euskara*

Hermes, pentsamendu eta historia aldizkariaren 79. aleak ere harri-koskorra ekarri nahi dio gure gizartean euskararen egungo egoeraren gainean sortzen ari den eztabaidari eta Adimen Artifizialaren eraginari.



Ondokoek parte hartu dute 79. zenbakian: Andres Urrutia eta Erramun Osa, euskaltzainburua eta Akademiaren idazkariordea, hurrenez hurren; Toti Martínez de Lezea idazlea; Arantza del Pozo Vicomtech konpainiako Hizketa, Komunikazio Teknologien eta Hizkuntza Naturalaren Teknologien zuzendariak; eta Jon Sarasua Mondragon Unibertsitateko irakasle eta euskaltzain urgazlea.

Benito Lertxundiri (Orio, Gipuzkoa) egin dio elkarrizketa Harri Fernandez Ituarte. 82 urte dituela iragarri du Lertxundik, Gernikako Jai-Alai frontoian iaz zuzeneko kontzertu batean grabatutako Gernika kontzertuan diskoa aurkeztu ostean, amaiera emango diola ibilbide musikalaria.

# 05 GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA

## MINTEGIAK

### 5.1 «Euskadi Think Next», unibertsitate, politika eta gizarte zibilaren arteko topagunea (sei mintegi)

2023ko azaroaren 18an, «Euskadi Think Next» berrikuntza politikoaren laborategia martxan jarri zenetik, dagoeneko zazpi topaldi edo mintegi egin dira (bi 2023an eta bost 2024an) ospe handiko pertsonen eskutik, Euskadiren egungo eta etorkizuneko erronkei euskal gizartearekin partekatuta heltzeko politika publikoak proposatu eta eztabaidatzeko helburuz.

Hala, azaroaren 29an, «Polarizazioa, demokraziaren haustura?» izenburuaren ildoan, Miriam Juan-Torres Berkeleyko Unibertsitateko (Kalifornia) Democracy & Belonging Forum Institute-ko Ikerketa zuzendariak eta Luis Miller CSICeko Politika eta Ondasun Publikoen Institutuko zientzialari titularrak politikaren polarizazioa jorratu zuten eta horrek demokraziarentzat ekar ditzakeen arriskuez jardun zuten.

Abenduaren 20an, «Politika eta hedabideak, komenentziako harremana?» izenburuaren ildoan, Lola Garciak, *La Vanguardia* egunkariaren zuzendari laguntzaileak, eta Daniela

Álvarezek, TikTok-en jarraituena (4,5 milioi jarraitzaile baino gehiago ditu) den «Act2ality» komunikabidearen sortzaileetako batek, parte hartu zuten mintegian.

Urtarrilaren 31n, Albert Hirschman Centre on Democracy Graduate Institut-eko (Suitza) ikertzaile senior eta Andre Politologoen Sareko sortzaileetako bat, Yanina Welp, eta Gipuzkoako diputatu nagusi Eider Mendoza «Euskadi Think Next» berrikuntza politikoaren laborategiko topaldi berri batean izan ziren. Topaldiaren izenburua hauxe izan zen: «Emakumeak politikan: aldaketa ala jarraipena?».



Euskal gizarteko hainbat esparrutako ia ehun ordezkariak parte hartu zuten jardunaldian. Bertan, emakumeak jarduera politikoan betetzen ari diren zeregina azaldu eta jarduera horri buruzko iritzia plazaratu zuten.

«Euskadiko osasun-sistemaren etorkizuna» erabili zuten hizpide otsailaren 6an, Bilboko Zabalguneko eraikinean, egin zen «Euskadi Think Next» berrikuntza politikoaren laborategiaren jardunaldian.

Albert Planes sendagile eta Kataluniako Lehen Mailako Arretako Bilguneko kidea; Itziar Vergara BioGipuzkoako sendagile eta zuzendari zientifikoa; eta Ander Urruticoechea Onkologikoko zuzendari eta Deustuko Unibertsitateko Osasun Zientzien Fakultateko irakaslea izan ziren hizlari nagusiak topaldian; bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako ospitale eta osasun-zentroetako osasun-arloko hainbat profesionalak ere parte hartu zuten.



Otsailaren 28an, Egoitz Etxeandia *Teach For All* eta Harvard University-ko STEAM proiektuaren aholkulari eta Irakasle Ekintzailearen Sari Nazionala jasotakoak; Marta Rosique i Saltor kazetaria, politologoa eta Diputatuen Kongresuko diputatu ohiak; eta Julen Karrion Muruetako (Bizkaia) alkateak parte hartu zuten «Euskadi Think Next» berrikuntza politikoaren laborategiaren beste topaldi batean, gazteen eta politikaren arteko egungo loturari buruz hausnartzeko xedez.



Ustez, eta badirudi inkesta askok ere horixe baieztatzen dutela, gazteek ez dute interes handirik politikan. Bestalde, politikan diharduten gazteak, nagusiki, proiektu politiko batekiko konpromisoaren ildoan hasi omen dira politikan. Gazteek aitortzen dute gazteriaren kezka ez daudela politikan islatuta, eta beharrezkoa dela belaunaldien arteko txandaketa egitea, politika arnasberritu eta jardunbideak eta agenda publikoa eraldatu ahal izateko.



Martxoaren 21ean, Imanol Pradalesek, EAJ-PNV alderdiaren izeneko lehendakari gaiak, eta Juan Jose Ibarretzek, Agirre Lehendakaria Centerreko (ALC) presidente eta 1999tik 2009ra Lehendakaria izandakoak, Tabakaleran parte hartu zuten Euskadi Think Nextek Euskadiko zaintza-sistemaren etorkizuna aztertzeke eskaini zuen jardunaldian.

Pradalesek nabarmendu zuen beharrezkoa dela nahi ez den bakardadearen egoerari aurre egiteko jardutea, lankidetzak publiko-sozialetik abiatuta, eta konpromisoa hartu zuen

zaintza eredu bidezkoago eta inklusiboagoaren alde lan egiten jarraitzeko, sektoreko enpleguaren kalitatea hobetuz, genero-berdintasuna sustatuz eta zaintzak eskubide eta erantzukizun kolektibo gisa aitortuz.

Pradales eta Ibarretzek gain, bileran parte hartu zuten Matia Fundazioko etxez etxeko arretako eta arreta komunitarioko zuzendari Maider Azurmendik, Lares Euskadiko idazkari Fidel Molina Ortegak eta Ignacio Ellacuria Fundazioko Torre de Babel topaketa- eta ahalduntze-taldeko koordinatzaile Claudia Favelak.

Maiatzaren 22an, Manuel Arias Maldonado politologo, idazle eta Malagako Unibertsitateko Zientzia Politikoko katedradunak eta Ramón González Férriz kazetari, idazle eta analista politikoak demokrazia liberalen oraina eta geroa aztertu zituzten EAJ-PNV alderdiaren eta Sabino Arana Fundazioaren «Euskadi Think Next» berrikuntza politikoaren laborategiak sustatutako «Demokraziaren etorkizuna. Nora goaz?» izeneko topaldian.

Jardunaldiaren hasieran, Oihane Agirregoitia EAJ-PNV alderdiaren Europako Parlamenturako hautagai eta



Europa Solidarioaren (CEUS) aldeko Koalizioaren zerrendaburuak Europa askotarikoa, solidarioa eta giza duintasunaren balioetan oinarritua izatea aldeztu zuen.

«Europako muina erdigunean jartzeko lan egitea dagokigu, eta, batez ere, premisa hori babestea eta defendatzea dagokigu», adierazi zuen Agirregoitiak, eta «Europa indartsu eta batuaren alde» egin zuen, «aniztasunean bat eginda; pertsonen Europa, demokratikoa eta solidarioa; Estatu Batuetako eta Txinako ereduaz bestelako Europa».

Eva Silván politologoak gidatutako ondoko elkarrizketan, Manuel Ariasek ziurtatu zuen «krisiaz hitz egiteari uzten ez diogun arren, ez dirudi demokraziak arriskuan daudenik», izan ere, «herritarrek demokrazien ideia eta indarrarekiko duten babesa neurtzen duten indizeek babes sendoa baino gehiago erakusten dute».

«Beste kontu bat da —jarraitu zuen Manuel Ariasek— herritarrek dituzten demokraziaren ikusmoldeak populistek eta estremista edo muturrekoek defendatzen dituzten molde iliberalekin bateragarriak izatea, hau da, alderdien arteko lehia murriztea, prentsa-askatasuna edo epaileen independentzia ahultzea, edo gizarte-aniztasuna mugatzea, baldin eta *euretarrek* gobernatzen badute».

Arias Maldonadok adierazi zuen mezu emozionalak iraganean nagusi zen arrazionaltasunaren gainetik oldartu direla ingurumari politikoan, eta horrek «zatitu eta polarizatu den publikoaren komunikatzeko gaitasuna murriztea» eragin duela.

Bestalde, Ramón González Férriz kazetari, idazle eta analista politikoak 2008ko finantza-krisiari egotzi zion «elite tradizionaletikiko mesfidantza justifikatuaren» sorburua.

Ramón González Férrizen ustez, 2008ko krisiak mugimendu jakin batzuen sorrera ahalbidetu zuen, hala nola M15a, Espainian, edo *Tea Party*, Estatu Batuetan. Mugimendu horiek eskatu zuten orduko eliteak baztertea eta, horien ordean, gizartea hobeto ulertzen zuten eta 'herria' deitzen zutenaren atal beste mugimendu batzuk ahaldundzea. Kazetari eta idazleak gogora ekarri duenez, mugimendu horiek alderdi berri bihurtu ziren —Podemos eta Vox Espainian, *Alternative für Deutschland* (Alemaniaren aldeko Alternatiba) Alemanian, *Syriza* Grezian eta beste asko— edo alderdi zaharrak zeharo eraldatu zituzten —AEBetako Alderdi Errepublikarra edo Erresuma Batuko Alderdi Laborista, esaterako—. «Lehendik errotuta zeuden alderdi erradikalek, hala nola Le Penen *Rassemblement national* edo Italiako Lega alderdiek gorakada izugarria izan zuten.

Gonzalez Ferrizen arabera, polarizazio politikoaren ondorioz, jendeak «futbol taldeak bailiran» bat egiten du alderdiekin.

Bi hizlarien ustez, eliteetikiko mesfidantzak, polarizazioak eta hautesleen zatiketak demokrazia liberalak arriskuan jartzen dituzte.

Hurrengo topaldian, ekainaren 26an, Xavier Trias mediku eta Bartzelonako alkate ohiak, Miren Azkarate filologo, EHUko katedradun eta Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu ohiak eta Jaime Otamendi kazetariak politikaren profesionalizazioak ekar ditzakeen abantailei eta desabantailei buruz eztabaidatu zuten.

Xavier Triasen ustez, jarduera politikoa gauzatzean, «gauza guztien gainetik», zerbitzu publikoaren bokazioa nabarmendu behar da. «Lehentasuna da herritarren bizitza hobetzeko lan egitea da, horri zor baitiogu gure eginkizuna», azpimarratu zuen. «Zerbitzu

publikoa sakrifiziotzat jotzen duten politikariek» ere ez dela fidatzen adierazi zuen. «Politikan aritzeko, gustukoa izan behar duzu eta gozatu behar duzu jardunean; sakrifiziotzat hartzen baduzu, herritarren kalte», adierazi zuen.



Azkenik, adierazi zuen politikan «ordezkatzen duzun alderdiaren babesari eustea» ezinbestekoa dela, baina «kargu instituzional batean duzun erantzukizunean, alderdikeriaz jokatzera saihestu behar da». «Azkenean, pertsona guztiei eman behar diegu zerbitzua, pentsatzen dutena pentsatzen dutela» esanez amaitu zuen.

Miren Azkarateren aburuz, politika profesionalizatuz joan da. «Baina hori al da desiragarria?», galdetu zion bere buruari. «Profesionalizatzea baldin bada politika egitea zure lanbidea, zure bizimodua, ez dut uste, oro har, desiragarriena denik. Gehienak konbentzimenduz sartzen dira politikan, ideia politiko bat partekatzeagatik; hala ikusten dut. Baina politikan urteetan jarraitzeko planteamenduak hasierako uste sendo hura alde batera uztea eta beste edozein kontsiderazioren gaineratik jarraitzeko ideia helburu bihurtzea ekar dezake», argitu zuen.

«Herritarrek hobeto baloratuko lukete, ziurrenik, politikagintza esperientzia egiaztatua duten profesionalak ikusiko balituzte, duten lanbidea utzi eta politikari urte batzuk ematen dizkietenak ondoren jatorrizko lanbidera itzultzeko», esan zuen Eusko Jaurlaritzako sailburu ohiak.

## 5.2 Euskal literaturaren memoria, genero-ikuspegiz

Azaroaren 19an, euskal emakume idazleen oroimena aldarrikatzea izan zen euskal literaturako adituak bildu dituen jardunaldiaren helburua, Sabino Arana Fundazioak, Labayru Fundazioak eta Bilboko Udalak antolatuta zuten topaldiaren barruan.





*Euskal kulturaren memoria. Euskal literatura eta emakumeak* izenburuaren ildoan, Xabier Altzibar idazle eta euskal literaturaren ikertzaileak; Larraitz Ariznabarreta euskal ikasketetan aditu eta Deustuko Unibertsitateko irakasleak; eta Jasone Osoro kazetari eta idazleak, euskal emakume idazleek zer idatzi eta zergatik idatzi duten jorratu zuten, klasikoetatik hasita eta gaurdainokoak hizpide hartuta; beste alde batetik, aurrekoen eta egungo egileen artean loturarik ba ote dagoen eztabaidatu zuten.

### 5.3 Mintegiak Oreki Fundazioarekin lankidetzan (3 mintegi)

#### 5.3.1 Sustraiako eraldaketak munduan: joera ekonomiko eta politikoen bihurguneak

Enpresa-, unibertsitate- eta politika-arloko ordezkariak parte hartu zuten otsailaren 29an Oreki Fundazioak eta Sabino Arana Fundazioak (SAF) Gipuzkoako Parke Zientifiko eta Teknologikoan antolatutako jardunaldian. Topaldi horren helburua izan zen gogoeta egitea bizi-aukerak eta lan-aukerak, banakakoak zein taldekakoak, sortu eta handitu nahi dituzten erakundeak eta antolakundeak dituzten erronka nagusiei buruz.

Mireia Zarate SAFen presidentearen ongiatorriko berbak entzun ondotik, Andoni Eizagirre (Mondragon Unibertsitatea) eta Ion Muñoa (Deustuko Unibertsitatea) irakasleek, «Sustraiako eraldaketak munduan: joera ekonomiko eta politikoen bihurguneak» liburuaren egileek, gidatu zuten jardunaldia.

Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusiak adierazi zuenez, «eraldatze bizkorren garaian, indibidualismoaren gorakadaren aurrean eta pandemia gogor baten ostean», sustraiako aldaketei aurre egiteko politika publiko guztiek «pertsona guztien ongizatea bilatzea» izan behar dute helburu. Abiapuntu horrekin, «herri gisa» ingurumen, gizarte eta teknologia eraldatzei «erantzun partekatu bat» emateko beharra azpimarratu du, euskal gizartearen “indar komunitarioa” babestuz eta garatuz, ekimen “berri eta eraldatzaileei bidea emanez» eta erakundeen eta gizartearen arteko lankidetzak espazioak indartuz.



Beste alde batetik, Mikel Irujo Nafarroako Gobernuako Industria eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko kontseilariak aldaketa teknologikoei eta globalizazioak gobernu baten lanean ezartzen dituzten erronka politiko eta ekonomiko nagusiei heldu zien. Irujok adierazi zuen «trantsizio digitala, energetikoa, berrikuntzakoa eta industria indartzekoa» jorratu behar dela, «enplegu iraunkorraren eta kalitatearen iturri delako».

Zigor Ezpeleta Mondragon taldeko Kudeaketa Sozialeko zuzendariak, Patxi Juaristi EHUko Soziologiako doktoreak; Jone Ardaiz ikertzaileak; Iñaki Goiogana SAFeko historialariak eta Nekane Larrañaga Soziologiako doktoreak ere parte hartu zuten jardunaldian.

#### 5.3.2 “Euskal ondasun eta erakunde komunen kudeaketa: tradizioa eta gaur eguneko erronkak”

Unibertsitate, enpresa eta erakunde arloetako 30 bat ordezkariak parte hartu zuten Andoni Eizagirre Mondragon Unibertsitateko irakasleak koordinatutako topaldi horretan, gure tradizioak mendeetan euskal erakundeen kudeaketan izan duen garrantzia eta etorkizuneko gobernantzaren erronka berriak aztertzei helburuz.



«Eredu absolutista ezarri aurretik, ituntzeak hedapen handia izan zuen Europa osoan, eta bereziki, Pirinioetako estatuetan errotu zen. Gaur egun, Euskal Herrian iraun du indartsuen», adierazi zuen Roldan Jimeno Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbidearen Historiako katedradunak.

Jimeno irakasleak adierazi zuenez, «Ituntze edo paktismo historikoa erregearen eta komunitatearen arteko harremanaren oinarria zen, eta gobernu-ekintzaren aldaketa handiak gauzatzeko adostasuna izatea helburu zuela, ohitura horiek mugak jarri zizkieten erregearen botere absolutua indartzeari». Nolanahi ere, esan behar da ituntzeko ohitura ez zela berria Euskal Herrian; izan ere, «eredu absolutista sortu zenean, sendo sustraiturik zegoen euskal lurraldeetako gizarte-portaeran», adierazi zuen.

Gaur egun, ituntzeko joera sano hedatuta dago Euskal Herriko mendebaldeko lurraldeetako bizitza publikoan. Roldan Jimenoren arabera, «foru-lurraldeen eta Espainiako Estatuaren arteko harremanetan datzan foraltasunaren oinarritzko elementuetako bat ituntzea da, eta horren adibide argiak ditugu Gernikako Estatutua, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko Lege Organikoa, EAEko Ekonomia Ituna eta Nafarroako Ekonomia Hitzarmena. Bereiztasun horrek bereizten ditu estatuaren foru-lurraldeekiko harremanak eta araubide erkideko gainerako lurraldeekikoak».

Mintegiaren irekiera-saioan, Mireia Zarate Sabino Arana Fundazioaren presidentek adierazi zuen honelako gogoeta-mintegiak beharrezkoak direla, «etengabeko oldarraldian datozkigun olde ultraliberal, populista, eskuindar, klima-aldaketaren ukatzaile, fake news-en sortzaile eta abarri aurre egiteko helduleku ideologikoak» izan ditzagun.

Bestalde, Patxi Juaristik, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Politika eta Administrazioaren Zientzia Saileko irakasle titularrak, «Politika, boterea eta gobernantza. EHUtik egindako irakurketa» izeneko liburua aurkeztu zuen. Bertan, EHUko errektoreorde zela, 2017 eta 2020 urteen arteko aldi izandako boterearen, politikaren eta gobernantzaren inguruko lekukotasunak jaso ditu.

Juaristiren esanetan, «politikan eta kudeaketan» esku hartu behar dugu «gure bizitzan eragina duten erakunde eta komunitate politikoaren gobernuaren parte hartu behar dugula» aldarrikatu zuen.

«Pertsonen askatasuna eta autonomia babesteko gauza izango gara, baldin eta erakunde publikoak zaintzen baditugu», azpimarratu zuen.

Bestalde, Jon Barrutia EHUko irakasleak erakunde erkideen egungo eta etorkizuneko erronkei buruz hitz egin zuen.

Azkenik, Gorka Lazkanok eta Markel Onaindiak, hurrenez hurren, lurretako Kofradietako zuzendariak eta ikertzaileak, lurretako Kofradien kasua mahairatu zuten, antzina-antzinako erakunde batzuen arrakastaren adibide XXI. mendean bertan. Hain zuzen ere, arrakasta ekonomikoa ez ezik, kudeaketa ekologiko eraginkorra sustatu dute erakunde horiek basozaintza eredugarria eta gizarte-kudeaketa bikaina garatuta, komunitatea sortze aldera.

#### 5.4 «Nola jardun lankidetzan krisian dagoen mundu batean? Jasangarritasuna, bideragarritasuna eta gobernantza globala sustatzeko gakoak»

«Nola jardun lankidetzan krisian dagoen mundu batean? Jasangarritasuna, bideragarritasuna eta gobernantza globala sustatzeko gakoak» izenburuaren ildoan, nazioarteko lankidetzak eta ekintza humanitarioak gaur egun dituzten erronka nagusiei heldu zieten maiatzaren 10ean, Sabino Arana Fundazioan, diziplina anitzeko ikuspegitik, erakundeetako, unibertsitateko, enpresako eta gizarte zibileko antolakundeetako hainbat arduradunek.

David Noguera laguntza humanitarioan diharduen langilea eta Mugarik Gabeko Medikuak erakundeko presidente ohia egungo krisiez eta laguntza humanitarioaren sektoreak dituen erronkez mintzatu zitzaigun. Joana Abrisketa, Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasle titularra eta Nazioarteko Ekintza Humanitarioko Masterraren zuzendaria, gatazka armatuei aplika dakizkiekeen arauen norainokoa azaltzen aritu zen, eta, zehatzago esanda, Israel eta Palestinaren arteko gerrari dagozkionak deskribatzen. Eta Manuel Sánchez-Monterok, Acción contra el Hambre Fundazioaren Eragin eta Harreman Instituzionalen zuzendariak, «Erronka humanitarioei ekiteko politikaren zeregina» izan zuen hizpide.



Paul Ortegak, Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak, koordinatu zuen mintegia, eta Nazio Batuen agentzietako ordezkariak ere parte hartu zuten bertan: UNRWA, ACNUR, UNICEF, CERF eta abar; laguntza humanitarioan diharduten GKEetako kideek: *Mugarik Gabeko Medikuak*, *Acción contra el Hambre*, *Oxfam*, *Save the Children*; agentzia espezializatuak, eta abar.

#### 5.5 Artxibo historikoen inguruko prestakuntza eta ikerketa

Dokumentazio historikoa eskuratzeko modua errazteko helburuz, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak antolatutako jardunaldien barruan, azaroaren 5ean, artxiboek unibertsitatearekin dituzten harremanak prestakuntzaren eta etorkizuneko



ikerketaren esparruetan nola dauden eta ildo horretan zer ekimen garatu diren aztertu genuen.



Adolfo Moraisek, Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak, hasiera eman zion Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak antolatutako «Artxibo historikoak: prestakuntza eta ikerketa» jardunaldiari. Helburua unibertsitatearen eta artxiboen arteko harremanari bultzada berria ematea izan zen, ikasleentzat mesedegarria den informazio-trukea

ahalbidetzeko eta lan-merkatura errazago hurbildu ahal izateko.

Jardunaldiaren bigarren zatian, Jesús Zubiagak, Sancho el Sabio Fundazioko zuzendariak, eta Anabella Barrosok, Bizkaiko Elizaren Historia Artxiboko zuzendariak, nork bere zentroak unibertsitatearekin izandako esperientziak azaldu zituen. Atal horretan, ikasleek eta ikasle ohiek ere parte hartu zuten, eta euren esperientzia nahiz hainbat artxibotan egindako lanaz mintzatu ziren.



Eta beste esperientzia bikain batzuk ezagutzeko, hala nola Extremadurakoa, Caceresko Probintziako Artxibo Historikoaren Esperanza Díazek parte hartu zuen jardunaldian. Bestalde, Óscar Álvarez Gila EHUko Ameriketako Historiako irakasle titullarrak bere esperientzia azaldu zuen, bai ikerketaren eta irakaskuntzaren ikuspegitik.

## **5.6 Ehungintza-kontserbazioaren V. jardunaldiak (Masterclass-a): «Ehunak kontserbatzeko euskarriak, prozedurak eta materialak»**

Laneratzeko bidean espezializazio-esparru desberdinak ezagutzeko xedez, ikasleei beharrezko tresnak eskaintza helburu duten jardueren esparruan, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak hitzaldi bat antolatu zuen bosgarren urtez jarraian EHUko Arte Ederren Fakultateko ikasleentzat, Museoko materialen ehungintza kontserbatzeari buruz.

Soledad Santistebanek, ehungintzaren zaharberritzean espezializatutako adituak, eman zuen jardunaldia, Euskal Abertzaletasunaren Museoko ehun-bilduma oinarri hartuta.

## **5.7 «Prebentziozko kontserbazioari buruzko V. jardunaldiak»**

Laneratzeko bidean espezializazio-esparru desberdinak ezagutzeko xedez, ikasleei beharrezko tresnak eskaintza helburu duten jardueren esparruan, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak hitzaldi bat antolatu zuen bosgarren urtez jarraian EHUko Arte Ederren Fakultateko ikasleentzat, Museoko materialen ehungintza kontserbatzeari buruz.



Begoña Aristegui, Arte Ederretako lizentziadunak era ehungintzaren zaharberritzean espezializatutako adituak, eman zuen jardunaldia. Besteak beste, Museo Arkeologiko Nazionalan, Museo Etnologiko Nazionalan, New Yorkeko Guggenheimen, Arte Moderno eta Garaikideko Museoan eta Bilboko Guggenheim Museoan aritu da Aristegui.

Bildumak zaintzen aditua denez, Aristegui Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoan ezarritako prebentziozko kontserbazio-prozesua jorratu du.

## HITZALDIAK ETA MAHAI-INGURUAK

### 5.8 Koldo Anasagastiren «Aunque silben las balas, te escribiré» liburuaren aurkezpena eta hitzaldia

Koldo Anasagasti idazle, telebistako saioen ekoizle eta agente artistikoak «Aunque silben las balas, te escribiré» izenburua daroan bere azken liburua aurkeztu zuen otsailaren 6an.



Lehenengo kontakizunean, naziek Berlinen antolatu zuten olinpiadaren kontrako herri- olinpiadan lehiatzera Bartzelonara joan ziren kirolarien frustrazioa azaltzen da, azkenean, ezin izan baitziren lehiatu, 1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarra eta horrek eragindako gerra zibila piztu zelako. Armak hartu eta euren ideologia matxinatuen aurrean defendatu zutenak ditu ardatz kontakizunak. Bigarren istorioan, aita batek ahaleginak eta bi egiten ditu, amorruz eta erabakitasunez, semearen heriotzaren benetako arrazoia ezagutzeko. Semea borrokan hil zen, Saibiko gailurraren aurkako erasoan, Urkiola inguruan. Hirugarren kontakizunak erizain gazte baten bizipenak dakarzkigu, erizainaren ideien aurkakoak dituen gizon baten zauriak sendatzen dituela. Gertaera horrek sekulako eragina izango du erizainaren etorkizuneko bizitzan. Azken istorioa Gurseko kontzentrazio-esparruan atxilo dagoen gudari gazte baten eta haren neskalagunaren arteko gutunerian funtsatzen da. Neskalguna maistra zen baina espedientea zabaldu eta lana kendu zioten, eta orain nekazaritza- eta abeltzaintza-lanetan dihardu Berangoko baserrian.

Aurkezpenean, Iñaki Garcia Uribe ikertzaile eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia saileko kideak ere parte hartu zuen.

### 5.9 «Gamazada euskaroen, nartarren eta euskaldunen garaian», Josu Chuecaren eskutik

«Gamazada izeneko Nafarroa garaikidean gertaturiko lehen jendeketa-mobilizazio handia izan zen». Horrela gogorarazi du gaur Josu Chueca historialari eta EHUko Historia irakasle titularrak Sabino Arana Fundazioan eman duen hitzaldian, gertaera gogoangarri horren 130. urteurrenaren kariatz.



«German Gamazo Ogasun ministroak 1893an eta 1894an egindako aurrekontuen proiektuaren aurkako protestak erakunde zein herritarren mobilizazio aparta eragin zuen Nafarroako foraltasuna aldezteko, laster batean etorri behar zen XX. mendeko joera politiko eta kulturalen larrialdiko testuinguruan. Gamazadaren magalean, euskaroak, bizkaitarrak, napartarrak eta euskaldunak batu ziren... foraltasunen aztarnak defendatzeaz gain, euskal herritarrentzako proposamen politiko eta kultural berriak dinamizatzeko», adierazi zuen Chuecak.

### 5.10 «Bioko uharteko ume galduak» dokumentalaren aurkezpena, Angie Carlota Lohoba eta Edmundo Separen eskutik



Otsailaren 21ean, Angie Carlota Lohoba eta Edmundo Sepa Bonaba hurreratu ziren Fundaziora, hurrenez hurren, «The Lost Children of Bioko Island» (Bioko uharteko ume galduak) dokumentalaren ekoizleak eta ikerketaren aholkulariak. Filma ikusi ondoren, haiekin hitz egin genuen Ekuatore Gineako Fernando Poo uhartearen (egungo Bioko uhartea) espainiar kolonizazioa egin zenez geroztik, *bubi* herriaren ia erabateko garbiketaren benetako arrazoa argitara emateko egiten ari diren ikerketa-lanari buruz.

Dokumentalak afroamerikar talde batek, bubien ondokoek, DNA proba baten bidez euren benetako jatorria nola aurkitu zuten erakusten du.

Sepa Bonabaren esanetan, «Badakigu ez dela lan erraza izango, baina argi daukagu, salaketa-prozesu honi geuk ekiten ez badiogu, kaltetun eta zuzeneko interesdun garen aldetik, gure kasua ez dela inoiz aitortuko eta ez dela aintzat hartuko nazioarteko agendan Europan eta Ameriketara pertsona beltzen tratularitzan eta esklabotzaren biktima izan ziren herriei eragindako kalteak konpontzeko»

### 5.11 «Castelao y los hermanos de la libertad» dokumentalaren emanaldia eta eztabaida-saioa, Xan Leira eta Iñaki Anasagastiren eskutik

Otsailaren azken astean, Alderdi Galeguistaren ordezkari batzuk Euskadira egindako bisita aprobetxatuz, Xesus Manuel Suarez Garcia presidentea eta Francisco Lopez Chesqui idazkari nagusia buru zirela, otsailaren 28an «Castelao e os irmáns da liberdade» dokumentala proiektatu zen SAFen egoitzan.



Ekitaldian, Xan Leira dokumentalaren zuzendari eta gidoilariak eta Iñaki Anasagasti «Castelao e os vascos» lanaren egileak ere parte hartu zuten.

## 5.12 Hitzaldiak Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoaren zuzendariaren Aitor Miñambres eskutik

Miñambresek azaldu zuenez, «Euzko Mendigoizale Batza (EMB) aipatzen dugunean, XX. mende hasierako kultura- edo kirol-talde batekin identifikatzeko joera dugu. Baina, bereziki asteburuetan antolatzen zituzten mendi txangoetatik haratago, euskal nazio idealaren propaganda izan zen haien funtzio nagusia.



Elkartea sortu zenetik, *Euzko Mendigoxale Batza* abiaburu abertzaleen hedatzaile nagusietakoa bilakatu zen euskal gizartearen esparru guztietan. Kultura- eta kirol-jardueraz gain, kideek joera politiko zehatza erakutsi zuten, eta euskal abertzaletasunak, bereziki, EAJk XX. mendearen lehen

herenean izan zituen liskar eta zatiketetan parte hartu zuten. 1936ko gerra hasi zenean, elkartekide asko Euzko Gudarostean sartu ziren, besteak beste, *Lenago il* edo *Zergaitik* ez batailoietan. Gerra amaitu ostean ere EMBk erakunde gisa jardun zuen erbestean, baina noizbehinkako jarduera garatuta.

Gerraostean, EMB erbestean egon zen, oso noizbehinka jardunez. Elkartearen jarduera politikoa ahuldu zenez, militante gehienak beste erakunde eta alderdi nazionalista batzuetan afiliatu ziren 50eko eta 60ko hamarkadetan.

## 5.13 Eliza Euskadin (bi hitzaldi)

### (1) «Añoberos auziaren» 50. urteurrena

Martxoaren 5ean, Anabella Barrosok, Bizkaiko Elizaren Historia Artxiiboaren zuzendariak, Eliza katolikoaren eta erregimen frankistaren arteko krisirik larriena eragin zuen gertakari historiko horren nondik norakoak gogorarazi zizkigun.

On Antonio Añoberos, 1909an Iruñean jaioa, Bilboko elizbarrutiko buru izan zan 1972 eta 1978 urteen artean. Bizkaiko elizbarrutiko buru bi urte zeramatzala, Eliza katolikoaren eta Francoren erregimenaren arteko krisirik larriena eragin zuen, orduko gobernua Espainiako Estatutik kanporatzen saiatu zelarik. Horren arrazoia ondokoa izan zen: «Kristautasuna, herriak salbatzeko mezua»

izeneko homilia, 1974ko otsailaren 24an Bizkaiko parroketan irakurri zena eta, besteak beste, honako hau zioena: «Euskal Herriak, Espainiako Estatuaren gainerako herriek bezala, berezko nortasunari heltzeko eskubidea du, bere ondare espirituala landuz eta garatuz, inguruko herriekiko truke osasuntsua izateari kalterik egin gabe, Euskal Herriaren askatasun bidezkoa aitortzen duen erakunde soziopolitiko baten barruan... Estatuak pertsonen eta herrien zerbitzuko egon behar du, eta benetan errespetatu behar du gizarte- eta kultura-aniztasuna...».





## (2) Emakumeen erronkak eta aukerak gaur egungo Elizan

Joseba Segura Bilboko gotzainak Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraliza Institutuko zuzendari Estrella Morenoren eskutik antolatutako topaldian parte hartu zuen maiatzaren 15ean, emakumeak gaur egun Bizkaiko Eliza katolikoan jokatzeko duen eginkizun garrantzitsuan gehiago sakontzeko.



Estrella Morenok adierazi zuenez, «egun, Frantzisko aita santuaren agintaldian eta sinodalitateari buruzko sinodoa (2021ean hasi zen elkarrizketa- eta entzuketako prozesua) abian dagoela, aldaketa eragiteko baliatu behar ditugun aukerak azaldu dira, aukera horiek Bizkaiko gure elizan dagoeneko finkatuta dauden jardunbide batzuk bermatzen dituztela». Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraliza Institutuko zuzendariaren arabera, «ez genuke aukera hau alferrik galdu beharko Jesusen jardunean eta jatorrizko Elizan daukagun sinestea berreskuratzeko, emakume gazteen belaunaldiek Elizaren egiturari bizkarra behin betiko eman diezaioten nahi ez badugu».

## 5.14 Hitzaldien zikloa Helduak Elkartearekin (bi hitzaldi)

### (1) Erorketak prebenitzeari buruzko hitzaldia

2017az geroztik, erorikoek eragindako heriotzak suizidioek eragindakoak baino gehiago dira, eta Euskadin inor ez da horrelako heriotzen prebentzioaren erantzule. Helduak Elkartea eta Sabino Arana Fundazioak (SAF) egun adinekoak gehien kezkatzen dituzten gaiei buruz (osasuna, zahartze aktiboa, adinekoak eta/edo mendekoak zaintzea eta abar) elkarlanean antolatzen dituzten hitzaldien esparruan, azaroaren 14an, Arriskuak eta Istripuak Prebenitzeko Behatokiaren presidentea Javier Larreak erorikoak prebenitzeko aholkuak eman zituen. Larreak gomendio ugari eman zituen erorketak saihesteko, berak esan zuenez, «erortzea ez baita zorte txarra; ekidin dezakegu».



### (2) Udalaren gizarte-zerbitzuak: Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen laguntzeko eta arriskuak prebenitzeko aholkuak eta gomendioak

Azaroaren 26an, Juan Ibarretxek eta Asier Alustizak, Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Arloko zinegotziak eta zuzendariak, hurrenez hurren, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen erantzuteko xedez herritarren eskura dauden gizarte-zerbitzuak eta udal-prestazioak azaldu zituzten.

## 5.15 «Expedición Groenlandia» dokumentalaren emanaldia eta eztabaida-saioa, Zigor Egiaren eskutik

Zigor Egia mendigoizale eta Euskal Mendizale Federazioaren presidentearen eskutik, «EXPEDICIÓN GROENLANDIA» dokumentalaren emanaldia antolatu zuen Sabino Arana Fundazioak. Aitor Gonzalezek zuzendutako film horretan, Zigor Egiaren beraren eta beste

hiru lagunengatik –Aurelio Sanz, Vicente Castro eta Pablo Martín– abentura zoragarria kontatzen du, nabigazioa eta alpinismoa uztartzen dituenak. Izan ere, lau euskal abenturazaleek, 2019an, Islandiatik abiatuta Danimarkako itsasarte zeharkatu zuten Groenlandiako ekialdeko kostaldera iritsi arte, hamaika metroko belaontzi batean, ordura arte igo gabeko mendiak igotzeko aprobeztatu egindako eskaletan.

Dokumentalaren emanaldiaren ondoren, Zigor Egiak hitz egin zuen ekitaldian parte hartu zutenekin eta egindako balentriaren xehetasun ugari eman zituen.



### 5.16 «EAJren politika Europazalea erbestean» hitzaldia, Leyre Arrietaren eskutik



2024ko martxoan, 75 urte bete ziren EAJ-PNV alderdiak bere burua alderdi demokrata eta kristautzat definitu zuenetik. Berebat, adierazpen horretan euskal eskubide nazionalak aldarrikatu zituen eta diktaduraren aurkako gainerako indarrek batera, frankismoaren aurka borrokatzeko asmoa agertu zuen.

1949ko martxoko adierazpen politiko hura abiapuntutzat hartuta, Historia Garaikideko doktore eta erbestealdiko EAJren politika Europazaleari buruzko tesia gertatu duen Leyre Arrieta Deustuko Unibertsitateko irakasle titularrak alderdi jeltzaleak 1945 eta 1977 urteen artean erabili zuen politika Europazalearen nondik norakoak azaldu zituen. Arrieta irakasleak politika horren helburuak, pentsamendu-korronteak –bai oinarri teorikoan, bai aplikazio praktikoan– eta ondoko bilakaera azaldu zituen.

### 5.17 Leizaola Lehendakariak Gernikara egindako bisita klandestinoaren 50. urteurrena

Jesus Maria Leizaola, *Lehendakari Zarra*, eredu bizia da gure Herriarentzat. Leizaolaren bizitzak, pertsonak, obrak, konpromisoak eta ondareak bizirik diraute gaur gure artean. Jose Antonio Agirre Lehendakariaren lekua hartu zuen, eta karguaren zina 1960ko martxoaren 28an egin zuen, egun batzuk lehenago Parisen hil zen bere aurrekoaren hilkutxaren aurrean. Frantziako hiriburuko erbestealdian izan zen Lehendakaria. Handik lan gogorra egin zuen diktadura frankista salatzeko eta askatasunaren eta euskal autogobernuaren garrari eusteko.

Erresistentzia ekintza horietako bat 1974ko apirilean egin zuen, muga ezkutuan zeharkatu eta urte hartako Aberri Eguna zela eta Gernikan azaldu zenean. Horrela, 37 urtez erbestean egon ondoren, Jesus Maria Leizaola Lehendakariak Euskadiko lurra zapaldu zuen berriro. Espainiako diktadurari aurre egiteko ekintza aparta.



Fede Bergaretxek, Javier Chalbaudek eta Pedro de la Sotak, Espainiako diktaduraren aurkako aparteko ekintza hartan partaide izan ziren hiru militante abertzale beteranok, nola antolatu eta gauzatu zuten azaldu ziguten solasaldian.

### 5.18 «Egungo krisi humanitarioak: Gazako kasua», Raquel Martiren eskutik (UNRWA)



Gazako gerraren krisi betean, maiatzaren 8an, Raquel Martik, UNRWA Ekialde Hurbileko Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziaren Espainiako Batzordeko zuzendari exekutiboak, Gazako zerrendako biztanleria zibila une horretan pairatzen ari zen egoera kritikoa azaldu zuen.

Milioi bat lekualdatu baino gehiago eta 35.000 hildako inguru zirela, Raquel Martik ziurtatu zuen agentziak konpromisoa hartu zuela zerrenda osoan laguntza ematen jarraitzeko, eta Gazako hornidura humanitarioen ibilbideak ez eteteko eskatu zuen.

UNRWAK egiten duen lana funtsezkoa da. UNRWA Gazako ekintza humanitarioaren bizkarrezurra da. Ingurumari horretan, UNRWA-Espainiako zuzendari exekutiboak azaldu duenez, «Palestinako iheslarien giza eskubideen babesa dela eta, euskal lankidetzak eragin handia izan duela eta baduela adierazi behar da».



### 5.19 Iñaki Zabaleta Gorrotxategiren «Nazioa eta hizkuntza Humboldtren prentsamenduan» liburuaren aurkezpena

Iñaki Zabaleta UPV/EHUko Filosofia saileko irakasleak «Nazioa eta hizkuntza Humboldtren prentsamenduan» izenburua daraman bere azken liburua aurkeztu zuen maiatzaren 13an Sabino Arana Fundazioan.



Hain zuzen ere, EHUko Joxe Azurmendi Katedrak eta Jakin Fundazioak zuzendutako Urjauzia bildumako argitalpen berri honetan, nazioak eta hizkuntzak humanista ezagunaren pentsamenduan duten lekua aztertu zuen Iñaki Zabaletak.



«Nazioari buruzko auzia Euskal Herrian ageri da beti —dio liburuaren egileak—, zuzenean edo zeharka. Ikuspegi horretatik, oso lagungarria izan dakiguke Wilhelm von Humboldt (1767-1835) lako pentsalari bati erreparatzea. Ikertzaile horrek, bere garaian eta inguruabarretan, beharrezkotzat jotzen zuen herrien identitate kolektiboari edo «ezaugarri nazionalari» buruz galdetzea, humanista gisa oso ondo zekielako gizakia edo gizabanakoa ezin dela gizatalde batetik kanpo ulertu. Politika-gaietan, Humboldttek, aldi berean, Prusiako herritar gisa eta Alemaniako herritar gisa jardun zuen —inoiz ahaztu gabe politika, berez, bitarteko bat dela, inoiz ez helburua—, orokorrean eta beti, Estatua zer den eta nazioa zer den argi eta garbi bereiziz, teorian zein praktikan. Nazioari dagokionez, nazioa kontzeptuzko eran ulertzeko, hizkuntzari erreparatu behar zaiola azpimarratu zuen (batez ere, ‘betikoaren’ ideiarri jarraituz). Eta ildo horretan, hizkuntzaren nazio-izaeraz eta nazioaren hizkuntza-burujabetzaz hitz egin zuen. Gainera, Humboldttek oso gogoan izan zuen euskal esperientzia, eta horrek, argi eta garbi, areagotu egiten du bere pentsamendu orokorra ezagutzeko interesa».

## 5.20 «Euskal Mendizale Federazioa. 100 urte» Zigor Egiak eta Ricardo Hernaniren eskutik

Euskal Herriko Alpinismo Federazioaren mendeurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien kariaz, Zigor Egiak eta Ricardo Hernanik, Euskal Mendizale Federazioko (FVM-EFM) presidentek eta presidenteordeak, hurrenez hurren, hitzaldia eman zuten Sabino Arana Fundazioan, maiatzaren 21ean.

Euskal Federazioa 1924ko maiatzaren 18an eratu zen Elgetan (Gipuzkoa) Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako mendi elkarteek sustatua; gaur egun, 50.000 mendizale federatu baino gehiago biltzen ditu.



## 5.21 Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren hitzaldiak (lau hitzaldi)

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (BBUP) eta Sabino Arana Fundazioak hitzaldi ziklo bat jarri zuten abian uztailaren 3an. Bertan, Partzuergoaren historia jorratu dugu erakundearen sorreratik bertatik, eta erakundearen bilakaeran eragin handia izan duten mugarri gogoangarriak aletu ditugu.

Hitzaldietako lehenengoan, Daniel Fernandez Ur Partzuergoko Zerbitzu Teknikoen zuzendari ohiak Partzuergoaren sorrera azaldu zuen, joan den mendeko 60ko hamarkadaren amaieran, eta lehen urratsak nolakoak izan ziren, 1970-1980 hamarraldian, hainbat inguruabar ekonomikor eraginda.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren ardura da sare primarioaren kudeaketa, edateko uraren hornidurari dagokionez nahiz hondakin-uren saneamenduari dagokionez. Gaur egun, 98 udalerrik osatzen dute, eta milioi bat eta ehun mila lagun baino gehiago bizi dira haietan; hau da, Bizkaiko biztanleriaren % 96,26 eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren % 51,20.

Irailaren 12an, «Udalerrri eta eskualdeen mailakako sarrera Partzuergoan: Bilbo Handitik Busturialdera», Pedro Barreiro erakundearen zuzendari



kudeatzaileak gogora ekarri zituen azken hamarkadetan izandako partaide berriak, eta hornikuntzaren atalean egindako jarduera nagusiak azaldu zituen, nagusiki. Azkenik, Barreirok atea zabalik utzi zien etorkizuneko parataideei: Karrantza, Artzentes, Arrankudiaga, Orozko eta Amorebieta-Etxano.

Urriaren 23an, Jose M<sup>a</sup> Villanueva del Casal Partzuergoko Zerbitzu Teknikoen

zuzendari ohiak Nerbioiren estuarioko urei bizia itzultzeko egindako lanak eta egindako inbertsioak azaldu zituen. Hiru hamarkada iraun dute lan horiek, eta Euskadin azken 30 urteetan egin den ingurumen-jarduerarik garrantzitsuena izan da.

Azkenik, abenduaren 10ean, Arantxa Sánchez Partzuergoko Zerbitzu Teknikoen zuzendariak «Azpiegituren plangintza, Bizkaiko hiri-uraren etorkizuneko erronkei erantzuteko» hitzaldiarekin eman zion amaiera zikloari.



Arantxa Sanchezek azpimarratu zuen oso garrantzitsua dela azpiegitura berritzaileak izatea, uraren kudeaketa iraunkorrek dakartzan erronkei erantzuteko. Partzuergoak konpromiso hori hartu du bere gain. Izan ere, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Zerbitzu Teknikoen zuzendariaren arabera, «iraunkortasuna eta berrikuntza funtsezko bi bektore dira ur-baliabideak kudeatzeko».

## 5.22 Ikurrinaren 130. urteurrena. «Ikurrina, 130 urte lau haizetara» hitzaldia

1894ko uztailaren 14an, larunbatarekin, arratsaldeko 6etan, lehenengo euskal alderdi jeltzalearen lehen taldea eratu zenean, Bilboko Posta kalearen eta Areatzako bulebarraren arteko elkargunean zegoen *Euzkeldun Batzokija* inauguratu zenean, ikurrina jaso zen lehen aldiz, solemnitatero.

Lehenengo ikurrin hori hori hainbat 'ahizpa' legez amaitu zen, 1895eko irailaren 12an Espainiako agintariak konfiskatu egin zutela, *Euzkeldun Batzokija* itxi zutelarik. Urtebete pasatxo iraun zuen 'bizirik'. Hortaz, 130. urteurrena ospatu berri dugu 2024an.

Uztailaren 11n, Juan Jose *Juanjo* Gonzalez bexilologo eta heraldistaren eskutik, hitz egin genuen ikurrina gaur egun ezagutzen dugun moduan nola eta zergatik diseinatu zen.



Sabino Arana Goirik eta haren anaia Luisek asmatu zuten, aberria eraikitzeko bi-biek abiatu zuten prozesuaren barruan; oso garrantzitsutzat jo zuten ikur propio batzuk izatea: herrialdearen izena, armarrria, bandera eta ereserkia. Eta lehenengo ikurra ikurrina izan zen.

### 5.23 **EHUKo Udako Ikastaroen 43. edizioan parte hartzea. Mireia Zarate SAFeko presidentearen hitzaldia**

Uztailaren 23an, Sabino Arana Fundazioaren presidente Mireia Zaratek «Arantzazun bizi: iragana, orainaldia eta etorkizuna zer» udako ikastaroan parte hartu zuen Oñatin, UPV/EHUK eta Arantzazulabek antolatuta, Arantzazuko santutegiaren etorkizuna eta Euskal Herrikoa lotzen dituzten bide natural eta kulturalak aztertzeko.

Hain zuzen ere, 5 mendeko historia duen santutegi horrek esangura berezia du euskal kulturaren: ezagutza, artea, tradizioak eta berrikuntza batzen dituen erabakigune eta elkargune garrantzitsua izan da.


SAFeko presidentearekin batera, Urko Aiertza, Telesforo Monzon eLab-eko zuzendaria, Gorka Espiau, Agirre Lehendakaria Centerreko zuzendaria, Naiara Goia, Arantzazulab-eko zuzendari nagusia, eta Antonio Casado da Rocha, Filosofian doktorea eta UPV/EHUKo irakaslea izan ziren mahai-inguruan.



### 5.24 **Eder Aurre, Euskadiko talentu, grina eta ekintzaitzaren adibide garbia**

Euskal Abertzaletasunaren Museoak 2021ean martxan jarri zuen «Gazte ekintzaileak» atalaren barruan, urriaren 8an, Portugaleteko moda diseinatzaile gaztea den Eder Aurreren

bisita jaso genuen. Aurrek «Ustekabeko norabide-aldaketa, nire bizitza helmuga bakar bihurtu zuena» hitzaldia eman zuen.



Eder Aurre moda diseinatzaile gaztea, talentuaren, pasioaren eta ekintzailetzaren adibide garbia da Euskadin. Oso gaztea izan arren, egungo modaren izen nabarmenetakoa izatea lortu du, eta Europa osoko pasarella eta ekitaldietara eraman du jaioterriaren izena.

«Gazte ekintzaileak» atalean, enpresa-proiektuak arrakastaz gauzatzeko eta gizarte-eragin positiboa sortzeko gai diren gazte ekintzaileek euren esperientziak eta proiektuak konta diezazkiguten lortu nahi dugu, eta horrek guztiak lanean konfiantzaz hasteko balio diezaiela beste gazte batzuei.

### 5.25 «Saregileak eta neskatilak. Desagertzen ari den lanbidea?» mahai-ingurua

Erakundeetako ordezkari ugari bertaratu ziren urriaren 15ean Ana Rosa Ispizua eta Begoña Patiño, saregileen eta nekatilen sektoreko Bermeoko bi langile, SAFen, Euskal Abertzaletasunaren Museoak gonbidatuta, belaunaldien arteko erreleborik ezaz eta sektorearen etorkizunaz dituzten kezkek entzutera.

Izaskun Bilbao Barandica eurodiputatu ohiak gidatu zuen ekitaldia, eta bertan izan ziren, besteak beste, Nerea Melgosa, Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburua; Koldo Goitia, Portu eta Itsas Gaietako zuzendaria; Urtza Alkorta, Ondarroako alkatea; Idurre Bideguren senataria; Idoia Platas eta Alazne Zumeta, Bermeoko Udaleko zinegotziak; Miren Elgarresta, Emakundeko zuzendaria; Aritz Abaroa, legebiltzarkidea; Rakel Goñi, Bizkaiko Batzar Nagusietakoa...



### 5.26 Itsasoa, berdintasun lurraldea. «Antonio Candina, kapitain eta itsasgizona»



Julian eta Javier Garaizar Candina, Antonio Candina Ibarra enpresari eta ontzi-jabe bizkaitar ospetsuaren bilobak izan genituen azaroaren 21ean, aitaitaren itsasorako grinaz eta itsas industriari lotutako enpresa-proiektuaz hitz egiteko. Proiektu hori, hain zuzen, laugarren belaunaldiak kudeatzen du gaur egun.

### 5.27 Gure industriaren oraingo eta etorkizuneko erronkak

Nafarroako Gobernuak Industria kontseilari Mikel Irujok eta Eusko Jaurlaritzako Industria sailburu Mikel Jauregik, Irujo Etxea Elkarteak eta Sabino Arana Fundazioak antolatutako «Gure industriaren oraingo eta etorkizuneko erronkak» izeneko topaldian parte hartu zuten azaroaren 27an.





zuen Jauregik.

Kontseilaria eta sailburua bat etorri ziren «industriaren deskarbonizazioan sektore berriztagarriak berebiziko garrantzia izango duela» esatean, eta Nafarroa eta EAE ildo horretan elkarlanean ari direla ziurtatu zuten.

«Gobernu eta kontseilari edo sailburu garen aldetik, hainbat arlo estrategikotan ari gara lanean lankidetzaz hori gero eta handiagoa izan dadin, hala nola sareetako energiaren gaian eta sorkuntza berriztagarri fotovoltaiko eta eolikoan, bi aldeentzako lehiakortasun-puntu bihurtu dadin», nabarmendu



zuen Jauregik. Irujok, bestalde, Nafarroa dagoeneko lanean ari den proiektuetako batzuk aipatu zituen: «palak birziklatzea Irunberrin eta Cortesen, hidrogeno berdea Barasoainen, edo bateriak birziklatzea Caparroson».

### 5.28 «Teknologiak erraztutako sexu-indarkeria: indarkeria berriak, arazo berriak»



Abenduaren 12an, Elisa García Mingo soziologoa eta sexu-indarkeria digitalaren gaineko aditua, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko irakaslea eta ikertzailea etorri zitzaigun Fundaziora. Teknologia berriek errazten dituzten sexu-indarkeria mota berriei buruz hitz egin zigun. Eta proposamen batzuk egin zituen indarkeria-mota horiek ugaritzea saihesteko; besteak beste, laguntza-ildoak sortu beharko lirateke biktimei laguntza psikosoziala eta juridikoa emateko; kasuak dokumentatu eta profesionalentzako eta erakundeentzako txostenak egin beharko lirateke; komunikabideetan ikusarazi beharko lirateke; eduki intimoa zabaltzea zailagoa izan dadin moduak proposatu beharko lirateke; biktimek irudiak salatu eta ezabatzea lortzeko aukerak eman beharko lirateke; eta indarkeria digitalaren kontzientzia eta ulermena areagotu beharko lirateke prebentzioaren bidez.

### 05.29 «Alberto Onaindiaren pentsamendu humanistatik abiatuta, bizikidetzaz demokratikoaren egungo prozesurako iradokizunak»

Lasarte-Oriako Ganbo Iturri kultur elkartearen egoitzan, jardunaldia egin zen abenduaren 14an, Oreki Fundazioak antolatuta, «Alberto Onaindiaren pentsamendu humanistatik abiatuta, elkarbizitza demokratikoaren egungo prozesurako iradokizunak» izenburuaren ildoan. Sabino Arana Fundazioaren historialari eta artxibozainak, Iñaki Goioanak, eman zuen hitzaldi nagusia eta horrek eman zion bide partaideen arteko geroko eztabaida-saiora.

**2024 Abenduaren 14. Lasarte-Oria**  
5. Mintegia

10:30etan, Ganbo Iturri egoitzan

*“Sugerencias para el proceso actual de convivencia democrática, desde el pensamiento humanista de Alberto Onaindia”*

14:00etan, Abend jaietxean jarraipena: Solazaldia eta diskurtsoa.

**Izena emateko:**  
orekifundazio@gmail.com  
whatsapp 767 417 476 tel.

**Antolatzailea:**  
OREKI-FUNDAZIOA

### 5.30 Engrazio Aranzadi *Kizkitza*. «Aberri baten Ereintza»



2023an, 150 urte bete ziren Engrazio Aranzadi *Kizkitza* jaio zela. Aranzadi Euzko Alderdi Jeltzalearen Gipuzkoako sortzaileetako bat izan zen, hainbat urtetan Euzkadi egunkariaren zuzendaria, eta, XX. mendearen hasieratik Gerra Zibilera arte, euskal abertzaletasunaren ideologorik nabarmenetakoa.

Patxi Agirre Arrizabalaga Historiako doktoreak (UPV/EHU) Aranzadiren ekinbide politikoaren zenbait alderdi jorratu zituen eta donostiarraren ideologia politikoari zerizkion abiaburu

batzuk azaldu abenduaren 19an Sabino Arana Fundazioan.

«La siembra de una patria» (Aberri baten Ereintza) izn zen hitzaldiaren izenburua, Engrazio Aranzadik 1935ean idatzitako azken lanean, 'ereintza' aipatzen baitu. Aranzadi Sabino Aranaren garaikidea izan zen, bizkaitarraren lagun mina eta lankide estua, eta euskal abertzaletasunaren erakusle nagusia izan zen sortzailea hil zenetik joan den mendeko hogeita hamarreko hamarkadara arte.

### 5.31 EAB. *Emakumeak aberria eginez* (hitzaldiak eta bi bisita gidatu)

«EAB. Emakumeak aberria eginez» erakusketaren kariaz, EHUKo *Garaian* Taldeko historialari eta ikertzaile Karmele Perez Urrazak, Begoña Bilbao Bilbaok eta Gurutze Ezkurdia Arteagak, erakusketaren egileek eta komisarioek, hitzaldiak eman dituzte aurten aurkeztu den tokian: Amorebieta-Etxano, Zarautz, Laudio.

## 06 EUSKARA

### 6.1 «Aurrera ala atzera goaz? GAKO BERRIEN bila» mintegia

Goiko leloaren haritik, Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak topaldia antolatu zuten abenduaren 18an artoko adituen eskutik, euskararen egoeraren eta bilakabide soziolinguistikoaren inguruko gako berriez eztabaidatzeko.



Iñaki lurrebaso Biteri, EHUko Soziologiako doktore eta UEMAko ikertzailearen hitzaldi nagusitik abiatuta, nor bere ikuspuntua azaldu zuen topaldiko partaide bakoitzak. Doktoretza-tesian, lurrebasok euskararen egoera eta bilakaera jorratzen ditu, demolinguistikaren ikuspegitik.

Ondoren, mahai-ingurua eta solasaldia antolatu ziren, hurrenez hurren: Miren Azkarate (euskaltzain osoa), Jokin Azkue (HABEko zuzendaria), Jon Sarasua (Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta euskaltzain urgazlea), Erramun Osa (Euskaltzaindiko idazkariordea), Eneko Bidegain (Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta euskaltzain urgazlea) eta Oskar Zapata (TAUPAko Nafarroako koordinatzailea).

Andres Urrutia euskaltzainburua eta Mireia Zarate Sabino Arana Fundazioaren presidentea jardun zuten hasierakitaldian. Topaldiari amaiera ematen, aldiz, Fundazioaren presidentea eta Sagrario Aleman (euskaltzain osoa eta Jagon sailburua) izan ziren.



# 07 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA

## EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIAN EGINDAKO LANAK

2024ko ekitaldian, Artxiboan biltzen dugun dokumentazioa eta urtean jasotzen duguna antolatzen, sailkatzen, deskribatzen eta birinstalatzeko jarraitu dugu. Horrekin batera, gure deskribapen-tresnak zuzentzen eta duela hiru hamarkada baino gehiagotik gorde dugun dokumentu-funts handia berrikusten jarraitu dugu. Aipagarriena Arteako dokumentu-funtsak prestatzea eta lekualdatzea izan da: Meñaka eraikinetik (Artxiboaren lehenengo egoitza 20 urtez) hurreko lonja batera. Lonja horrek baldintza hobekak ditu dokumentazioa kontserbatzeko, eta Euskal Abertzaletasunaren Artxiboaren eta Museoaren behin betiko Urrutiko Gordailua da.

Azken urteetan ohikoa izan den bezala, 2024an, Fundazioak jardura biziz izan du mintegiak, hitzaldiak, mahai-inguruak, liburuen aurkezpenak edo filmen proiektzioak antolatzen eta egiten, adibidez. Horretarako, Fundazioko kide guztien laguntza eta dedikazio handiagoa behar izan da.

## I. DOKUMENTU-FUNTSAK

### A. AGIRITEGIA

2024an, norbanakoen dohaintzetatik eratorritako artxiboko dokumentazio hau antolatu da (sailkapena, deskribapena eta instalazioa):

a) Bermeoko Bilbao Sakona familiaren artxiboa osatzen duten dokumentuak berrantolatzea. XX. mendearen bigarren erdiko dokumentazio ekonomikoa biltzen du, herrian izandako negozio eta enpresei, jasotako herentziei eta jardura politikoko dokumentazio-atal txiki bati dagokiena (Luis Bilbao Madariaga, Bermeoko alkatea).

b) Honako artxibo hauen funtsak instalatzea, erregistratzea eta deskribatzea:

- Engrazio Aranzadi “Kizkitza” (Gipuzkoa)
- Jesus Ardanza Barrondo (Bizkaia)
- Elisabete Bizkarrategorra (Bizkaia)
- Joaquin Egia Unzeta (Inglatera)
- Jose Maria Abaurrea (Iruñea)
- Parisko Emakume Abertzale Batza
- Fructuoso Perez Arrospide (Argentina)
- Biarritzko Emakume Abertzale Batza
- Ander Arzelus “Luzear” (Gipuzkoa)
- Joseba Zinkunegi Arruti (Gipuzkoa)
- Beste bilduma txiki batzuk (Esteban Bilbao, Xabier Landaburu, etc.)



c) Ramón de la Sota Aburtoren artxiboa: Ramón de la Sota Aburtok bildutako eta kontserbatutako dokumentazioa sailkatzeko, deskribatzeko eta ordenatzeko bigarren fasea, 2024aren amaieran hasita, digitalizatzeko helburuz. Funts horrekin egindako lana – 1992an Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Artxiboari dohaintzan emandakoa – Euskadiko Artxibo Historikoarekin egindako kontratu bidez gauzatu da. Gerra zibilak eta frankismoak banatutako Sota familiaren artxibo handia berreraikitzeke Eusko Jaurlaritzaren erakunde horrek gidatutako proiektuaren parte da.

Azkenik, funts hori deskribatzen duten fitxen kopurua 950ekoa da, eta dokumentazioa, 10 ataletan sailkatua, gehienez 150 instalazio-kutxatan bilduta geratu da (dokumentazio eta material grafikoaren artean). Enpresa, Ondare, Londresko Epaiketa, Testamentu edo Gutuneria ataletako jatorrizko zaharrenekin batera, adierazi behar da Sormen Jarduera atala – Ramón de la Sota Aburtok berak egina, eta Bizkaiko Historiari, Bilbori edo bere Itsas Historia handiari buruzko serieetan banatua– ia artxiboaren erdia eta datu-basearen erregistroen erdia dela.

d) Kontratu bidez antolatutako Euskadiko Artxibo Historikoaren dokumentu-funtsen ildotik, aipatzekoa da aurten Ramon Sota Zorraquinen funtsa, Jon Bilbaoren Euskadiko Gobernuaren dokumentazio historikoa eta Ixaka Lopez de Mendizabalen Artxiboa landu direla.

## B. LIBURUTEGIKO FUNTSAK

Aurten, **1.011** obra berri sartu dira Liburutegian. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko Liburutegia osatzen duten monografiak **36.861** dira gaur egun. Hala ere, kopuru horri Arteako urrutiko biltegian dauden 4.000 ale gehitu behar dizkiogu.

Ekitaldi honetan, kopurua dela eta, honako dohaintza hauek nabarmendu behar ditugu: Juan Maria Atutxa, Iñaki García Uribe, Sorkunde Arregi edo Goñi Labiano familia (Iruñea).

Duela urte batzuetatik egiten ari garen moduan, Bilboko gordailuan ale bakarra gordetzen da lan bakoitzaren edizio bakoitzeko, baldin eta gaia eta edukia bat badatoz gure liburutegi espezializatuan ezarritako irizpideekin. Gainerako monografiak Arteako urruneko liburutegira eramaten dira (balioa kontserbazioagatik, bikoiztasuna gorabehera) edo beste helmuga batzuetara bideratzen dira.

Arestian aipatu bezala, atal honetan Arteako urruneko liburutegia birsailkatzeko lanak aipatu beharko lirake (balorazioa eta banaketa/kokapen berria, kasuen arabera); hurrengo hilabeteetan amaituko dira.

## C. UZTURRE HEMEROTEKA

Urtean zehar jasotako aldizkako argitalpenen aleak erregistratzen eta katalogatzen jarraitu dugu, aleak banan-banan sailkatu, ordenatu eta egiaztatzeke lanak egin ondoren, errepikatuta dauden ala ez jakiteke. Hala, **26** titulu berri gehitu dira hemerotekan 2024an. «Uzturre» hemerotekak, 500 metro linealetik gorako biltegia duenak, orain arte **7.486** titulu ezberdin ditu eta **187.762** ale inguru bilduta.

Bestalde, «Hustuketa» datu-basea (informazio historikoa duten artikulak, hainbat argitalpenetan argitaratuak (*Euzkadi, Alderdi, Hermes, Bizkaitarra, Deia, Euzko Deya...*) dagoeneko **15.433** erregistrora iritsi da. Aurten, 1945. Urteko Caracasko *Euzkadi* egunkaririk eta Mexikoko *Euzko Deya* egunkaririk hartutako 300 artikulua gehitu dira.

### **Agiritegian egindako beste zeregin batzuk**

Dokumentu-funtsak behar bezala antolatzea eskatzen duten berezko zereginekin batera, Abertzaletasunaren Agiritegian honako hauei eskaini diegu gure arduraldiaren beste zati handi bat:

- Agiritegiko erabiltzaileentzako arreta. Kontsultak telefonoz, posta elektronikoz, web bidez edo zuzenean jasotzea (erregistroa eta erantzunak), eta aretoan dauden nahiz bertaratu gabe dauden ikertzaileei zerbitzua ematea: gure funtsei buruzko informazioa ematea, dokumentazioa ematea eta jasotzea, erreprografia –fotokopiak eta digitalizazioak–, babestutako PDF fitxategietan eskaneatutako irudiak bidaltzea, eta abar. Horrez gain, informazio osagarria eskaintzen zaie eskatzen dutenei edo behar dutenei: Interneteko bilatzaileak eta datu-baseak erabiltzea, beste erakunde batzuekin harremanetan jartzea, web-estekak, eta abar.
- Dokumentu-euskarria ekoiztetxeentzat eta komunikabideentzat.
- Gure dokumentu-funtsen publizitatea, Sabino Arana Fundazioaren webgunearen eta sare sozialen bidez.
- Aurten egin diren gure historiako urteurrenekin zerikusia duten eta sortu diren jarduerak gauzatu, zabaltzen edo dokumentu-euskarrian laguntzea, besteak beste:
- *Euzkeldun Batzokija*-ren 130. urteurrena, ikurrina lehen aldiz jaso zen tokia.
- Sabino Aranak Gamazadan parte hartu zueneko 130. urteurrena
- Bilboko Euzko Gaztediren 120. urteurrena.
- EAJ-PNVren adierazpen politikoaren 75. urteurrena
- Gerra Zibilaren osteko lehen Aberri Eguna (klandestinoak) Gernikan ospatu zeneko 60. urteurrena.
- Añoveros auziaren 50. urteurrena (Bilboko gotzainak diktadura frankistaren inguruan egindako salaketa)
- 1974ko Aberri Egunean Leizaola lehendakariak Gernikara eta Bilbora egindako bisita klandestinoaren 50. urteurrena.

Bestalde, aipatu behar da, Agiritegiko eguneroko jarduera horrekin guztiarekin batera, 2024an Historia graduko bi (2) ikasle gaztek egindako lana prestatu, zuzendu eta gainbegiratu dela, EHUK Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan ematen duen lan-trantsizioko bekaren (360 ordu) onuradun direla.

## **II. KONTSULTAK**

2024an, **171** informazio-eskaera jaso dira Abertzaletasunaren Agiritegian (53 emakumezkoek egindakoak eta 118 gizonezkoek egindakoak), aurreko ekitaldiren ildo

beretik (hau da, kontsulta gehienak posta elektronikoz (90) eta telefonoz (45) egin dira, aretoan zuzenean (21) edo gure web-orrian dauden inprimakiak edo Internet erabiliz (15).

Oroimen Historikoaren inguruko informazio-eskaerak nagusi dira: gerraren, erbestealdiaren edo norbanakoen (gudariak, presoak, desagertuak eta abar) ingurukoak. Aipatutakoen familiar-tekoek, erakundeek, hedabideek zein komunikazio-enpresek egin ohi dituzte eskaerak, informazioa ikerlan, urtemuga, proiektu, lan zehatz eta abarretan erabiltzeko.

Agiritegian urtero-urtero jasotzen diren kontsultei dagokienez, esan dezagun (urtero adierazten dugun moduan) informazioa kontsultatzeko eskaera egin eta gure erantzunean hartutako datuak aztertu ondoren, agiritegira jatorrizko agiriak ikusten datozenak ere zenbatzen direla. Aretoko erabiltzaile horien –ikertzaileak, erakundeetako ordezkariak, irakasleak, ikasleak eta/edo norbanakoak– izen-abizenak eta ikergaia jasotzen dira ikertzaileei eskainitako oroitza-txostenaren azken atalean. Ikergaien zerrenda, argi denez, urtean izandako kontsulten erakusgarri eta laburpena da.

2024an jasotako kontsulten banakaketa	
Unibertsitatea / Ikerkuntza	48
Norbanakoak	85
Gizarte- eta Kultura-erakundeak / Euskal Administrazio Publikoa	13
PNV / SAF	18
Hedabideak / Enpresak / Ekoiztetxeak	7

Agiritegian jasotzen ditugun kontsulten kapitulu orokor honen barruan, informazioa eskatu ondoren, eta gure erantzunetan lortutako datuen ondorioz, agiritegira jatorrizko dokumentazioa bertatik bertara kontsultatzera igarotzen diren pertsonak egindako ikerketak ere zenbatzen dira. Aretoko erabiltzaile horiek –ikertzaileak, profesionalak, erakundeetako ordezkariak, irakasleak, ikasleak eta/edo norbanakoak– memoria honen beste epigrafe batean ere zenbatu eta zehaztu dira, eta haien ikerketa-gaiak jasotzen. Ikerketa horietako gaien zerrenda baliagarria izan daiteke jasotako urteko kontsulta guztien lagin eta laburpen gisa.

Agiritegian jasotako kontsulten zenbaketa orokorra, 1992ko urriaz geroztik erregistratukoak aintzat hartuta, **7.547** kontsultakoa izan da.

### III. HISTORIA ETA DOKUMENTAZIOARI BURUZKO AHOLKULARITZA

Lankidetzak, solasaldiak, hitzaldiak, jardunaldietako parte-hartzea, argitalpenen kontrola, ikerketa-lanen koordinazioa...

#### Mintegia

Dokumentazio historikoa eskuratzeko modua errazteko helburuz, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak antolatutako jardunaldien barruan, azaroaren 5ean, artxiboek unibertsitatearekin dituzten harremanak prestakuntzaren eta etorkizuneko ikerketaren esparruetan nola dauden eta ildo horretan zer ekimen garatu diren aztertu genuen, duela bi urte antolatutakoaren ildotik.

Sabino Arana Fundazioaren 30 urteko ibilbidearen urteurrenaren ondorioz, gure Agiritegiak urtero-urtero artxiboei buruzko jarduera monografiko bat antolatzen beharra antzeman zuen, alderdi oso desberdinetatik begiratuta. Lehenengo urtean, artxiboen garrantziaz eta, oro har, dokumentu-funtsen kontserbazioaz hitz egin zen, eta ia, XIX. eta XX. mendeko funts pribatu eta pertsonaletan jarri genuen arreta.

Oraingo honetan, artxiboek unibertsitateko ikasleen prestakuntza teknikoan egiten duten ekarpenaz aritu nahi izan dugu, beren gaitasunak osatuz, lan-munduari edo ikerketari arma gehiagorekin aurre egin ahal izateko.

Adolfo Moraisek, Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak, hasiera eman zion Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak antolatutako «Artxibo historikoak: prestakuntza eta ikerketa» jardunaldiari. Helburua unibertsitatearen eta artxiboen arteko harremanari bultzada berria ematea izan zen, ikasleentzat mesedegarria den informazio-trukea ahalbidetzeko eta lan-merkatu errazago hurbildu ahal izateko.

### Elkarrizketak eta beste jarduera batzuk

DATA	EKITALDIA	PARTE-HARTZ.
2024/01/22	Euskadiko Artxibo Historikoan, Isaka L. de Mendizabal funtsaren aurkezpen publikoa, goizeko 11etan	Goigana, Iñaki
2024/02/14	Mahai-ingurua/hitzaldia Astrabuduako batzokian, 19:00etan, batzokien historiari buruzkoa	Goigana, Iñaki
2024/02/22	Joaquin Egia Euzko Jaurlaritzako Ontzidiari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2024/02/29	Ekonomia Itunari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2024/03/02	Abadiñoko Mendiola auzuneko eskolari buruzko dokumentalean parte hartzea	Goigana, Iñaki
2024/03/07	Añoberos gotzainari buruzko elkarrizketa Bizkaia Irratian	Goigana, Iñaki
2024/03/07	Agirre lehendakariaren urteurrenari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2024/03/13	Buenos Aireseko Laurak Bat euskal etxearen sorrerari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2024/03/20	Gerra Zibilean, umeen haurren lehen ebakuazioari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2024/03/27	Aberri Egunari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2024/03/30	Aberri Egunari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian (asteburua)	Gezala, Luis de
2024/04/08	Emakume Abertzale Batzari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2024/04/15	Joseba Rezolari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2024/04/22	Gernikako bonbaketari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
2024/04/29	Elias Gallastegiri buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de

<b>2024/05/27</b>	Euskararen aurkako jazarpenari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
<b>2024/06/03</b>	Larrazabalgo zinari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
<b>2024/06/10</b>	Antonio de Gezalari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
<b>2024/06/17</b>	Bilbon izandako «Presidente Sarmiento» fragatari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
<b>2024/06/22</b>	Imanol Pradales Lehendakariaren zinari buruzko elkarrizketa Euskadi Irratian	Goiogana, Iñaki
<b>2024/06/24</b>	11 Av. Marceau-ko eraikinari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
<b>2024/08/03</b>	Ikurrinari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
<b>2024/09/07</b>	Juan de Ajuriagerrari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
<b>2024/09/16</b>	Joseba Elosegiri buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
<b>2024/09/23</b>	Txiki eta Otaegiren hilketari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
<b>2024/09/30</b>	Lehenengo Euskal Autonomia Estatutuaren onarpenari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
<b>2024/10/10</b>	Euskal Alderdi Jeltzalearen historiari buruzko hitzaldia Leioako batzokian	Gezala, Luis de
<b>2024/10/28</b>	Euskal Foruen abolizioaren 183. urteurrenari buruzko elkarrizketa	Gezala, Luis de
<b>2024/11/25</b>	Sabino Aranari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
<b>2024/12/02</b>	Atotxan, 1976an, atera zen ikurrinari buruzko elkarrizketa Onda Vasca irratian	Gezala, Luis de
<b>2024/12/14</b>	Alberto Onaindiari buruzko hitzaldia Lasarten	Goiogana, Iñaki

### Argitalpenak

- Urtearen barruan, DEIA egunkariko *Historias vascas* saileko artikuluak astero bi orrialdetan argitaratzeko koordinazioa. Lan hori 2009tik egiten da.
- Miren Barandiaran Contrerasen «Publicaciones periódicas del Partido Nacionalista Vasco, 1939-1975» lanaren ePub formatuan argitaratu da.

### IV. AGIRIEN DOHAINZAK

2024an, **51** pertsona eta/edo erakunde aritu dira Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiarekin elkarlanean, eta hainbat dokumenturen dohaintza dituzte. Kopuru horretatik **26** dohaintza berriak izan dira aurten.

Orain arte, **1.638** dohaintza jaso dira Agiritegian.

Aurtengo emaileak hauexek izan dira:

Dohaintza-Egilea	Funtsa	Data
Abasolo, Asier	Josu Abasolo artxiboa	2024/11/26
Abrisketa, Inge	Audioak eta argazkiak	2024/08/15
Aguirre, Rafael	Erretiratuta dagoen Bilboko ume baten oroitzapenak	2024/02/15
Aizpuru, Mikel	Bilbao Sakona familiaren funtsa	2024/06/05
Algorta, Eaj-Pnv	Liburutegia, ikus-entzunezkoak eta dokumentuak	2024/10/25
Anasagasti, Iñaki	Agiritegiko dokumnetuak, liburuak eta monografiak	2024/11/20
Aranburu, M <sup>a</sup> Jesús	Ignacio Orbegozo Makazagaren dokumentuak	2024/09/13
Ardanza, Jesús	Jesus Ardanza Barrondo funtsa	2024/11/15
Ardanza Lehendakaria	Ardanza Lehendakaria funtsa, ABB...	2024/05/06
Arrazola, Presen	Funtsa pertsonalaren dokumentuen kopiak	2024/03/26
Arregi, Sorkunde	Liburutegia	2024/01/09
Arren, Karmelo	Eusko Alkartasuna (monografiak, egitarauak...)	2024/05/07
Balmaseda 1937	Liburutegia	2024/08/16
Astarloa	Liburutegia	2024/02/13
Atutxa, Isaak	Liburutegia	2024/12/11
Barandiaran, Miren	Agiritegia	2024/12/02
Barros, Maribel	Liburutegia	2024/10/30
Batarrita, Javier	Scheiflerren artikulua (DEIA, El mensajero, Muga)	2024/09/05
Berasaluze, Olga	Agiritegia	2024/11/18
Bergarako Udala	Liburutegia	2024/05/09
Bizkarralegorra, Elisabete	Liburutegia eta dokumentazioa: <i>Comisión Instructora Navarra</i>	2024/09/18
Bujanda, Jose M.	«Hiztegi politiko baten lehen oinarria» dokumentua	2024/05/06
Camino, Iñigo	Camino familiaren dokumentuak (EAJ)	2024/09/03
Eguia, Miren De	Joaquin Egia Unzeta funtsa, (Euzkadiko Gobernuko Ontzidia)	2024/04/18
Eguren, Itxaso	Funts pertsonala: Gorka Eguren (agiritegia)	2024/04/18
Euskal Artzainak Ameriketara (EAA)	Liburutegia	2024/01/09
Mendi Federazioa	Liburutegia	2024/05/21
Gaintza, Angel	Argitalpen seriatuak, monografiak, kartelak...	2024/01/10
Garcia, Iñaki	Hemeroteka ( <i>Axular</i> aldizkaria)	2024/03/04
Gartzia, Luis Pablo	Agiritegia (epaiketa)	2024/01/26
Glez., Carmelo	Funts pertsonala: (Txileko Euzko Etxea)	2024/01/31
Glez., Jose A.	Liburutegia ( <i>Historia de Euskadi, I-VI</i> )	2024/02/22
Glez., Juan José	Kartelak, paparrekoak eta beste	2024/07/16

Goñi Labiano, Fam	Jose Maria Abaurrea funtsa (liburutegia)	2024/10/03
Guembe, Arantza	Pablo Guemberen argazkiak, <i>Eusko Indarra</i> batailoia	2024/04/18
Irazola, Ane	Hauteskunde-propaganda	2024/06/11
J. Goikoetxea. Lagunak	Joseba gogoan: erreportaje grafikoa eta testuak biltzen dituen albuma (Iñaki Munetarena eta Joseba Egibarrena, besteak beste), J.G.ren hilketaren 30. urteurreneko ekitaldian irakurri zirenak.	2024/05/30
Lalama, Antton	Parisko Emakume Abertzale Batza artxiboa	2024/03/08
Martcorena, Karmele	Agirre Lehendakaria artxiboa (oroitzapenezko txartela eta argazkia)	2024/09/05
Molinuevo, Iratxe	Liburutegia eta Museoa (koadro bat)	2024/05/30
Mungia, Eaj-Pnv	Bandera eta 2 film	2024/05/28
Muñoz, Borja	Liburutegia	2024/01/31
Nikolas, Iñaki De	Liburutegia	2024/02/21
Oribe, Paulino	Agiritegia	2024/11/28
Otxoa, Jose A.	Agiritegia	2024/09/12
Part. Galeguista	Liburutegia	2024/02/28
Perez B., Rosa M <sup>a</sup>	Dokumentak, argazkiak, marrazkiak (Fructuoso)	2024/08/05
Perez, Iván	Funtsa pertsonala	2024/11/04
Piedra, Gabriel	Hemeroteka	2024/03/20
Ruiz, Iñaki	Hauteskunde-propaganda	2024/06/06
Zinkunegi, Jonan	Joseba Zinkunegi eta Ander Arzelus funtsak	2024/06/06

## V. IKERTZAILEAK

2024an, **37** ikertzailek kontsultatu dituzte gure dokumentu-funtsak: 27 gizonen eta 10 emakumek..

### Ikergaiak

Euskal abertzaletasunaren ikurrak

Mercedes Kareaga, Emakume Abertzale Batza

Gerra zibila hastean Lekeition sortutako erbestea

Joseba Biritxinaga (“JEL-orde”)

Emakume Abertzale Batza

Euopazaletasuna

Gustavo Scheiffler

Benedicto Barandalla (Nafarroako karlista)

Reyes Just Mir “Emilio P. Neguri”

Carmen Gurtubay Alzola



Nicolás Landa Garay

Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak abertzaleen ikusmolde eta jardunbideetan

Antonio Zubimendi Darras (aitona) eta Joseba Zubimendi Martiarena (birraitona)

Andoni Urrestarazu “Umandi”

Euzko Gaztedi EGI

Matxitxakoko guda

Irizarry abizena, amaren aldeko euskal ondorengoa

Begoñako Amaren bitxiei buruzko artikulua

Sestaoko batzokia

Jose Ramón Scheifler

Klaudio Bilbao Ortuoste

Ipar Irlandako eta Euskadiko indarkeria politikoaren amaiera-prozesuen alderaketa kritikoa

Italiako eta Euskadiko alderdien arteko harreman politikoak

1939ko emakumezkoen erbesteratzea Latinoamerikan eta emakumezkoen euskal erbesteratzea Venezuelan

Euskal Herriko eta Irlandako loturak 30eko hamarkadan.

Mendizaletasuna, gizartea eta nortasuna Bizkaian (1900-1936)

Jon Mirande

Txomin (Domingo) Letamendi Muruaren bizitza

Jose Solaberrieta

Radio Euzkadi Iparraldean

Memoria historikoaren saiakera (“El peso de la Memoria”)

Lekeitioko eta Irlandako herri bateko abertzaletasunaren garapenaren arteko konparazioa

Anton Irala

Loiola Irratia

---

## VI. INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA: WEBGUNEA – SARE SOZIALAK

- Sabino Arana Fundazioaren webgunean dagoen datu-basea aldi berean behin eguneratzea, gure dokumentu-funtsen artean biltzen ditugun liburu, aldizkari eta egunkariei buruzko informazioarekin.
- Efemerideak sare sozialetarako (Facebook, Instagram eta Twitter)
- Mezu@buletin elektronikoa bidaltzea, urtero egiten ditugun jardueren berri emateko Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Ekitaldiak streaming bidez zuzenean zabaltzea; gure egoitzako Lehendakari Agirre aretoan egiten diren jardueren bideo-grabazioak biltegitratzea (hitzaldiak, mintegiak, liburuen aurkezpenak, etab.) eta ondoren Internetera igotzea, gure webgunetik edo YouTubeko profiletik nahi denean ikusteko.

# 08 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

## 1. Urteko balantzea

2024ko ekitaldian, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoa Nestor Basterretxearen jaiotzaren mendeurrenaren ospakizunari ekin dio, eta negatibo batzuk digitalizatu ditu, artistaren irudi ezezagunekin. Museoan gordetzen ditugun irudi eta lan asko eta asko Jorge Oteizaren lanekin oso lotuta daudenez, artista horren irudiak ere digitalizatu egin ditugu, eta irudi gehienak argitaragabeak eta herritarrentzat balio historiko handikoak dira.

Era berean, pinakotekaren funtsa birkatalogatu dugu, bi biltegitan banatuta, horietako bat kanpoko (Artean). Horrela, haien kontserbazio-egoera berrikusiko da, eta kokapen berria esleituko diogu.

Museoaren funtsak katalogatu dira, eta sarrera berrien inbentarioa egin da, urte honetan zehar jaso ditugun dohaintzen bidez, 1.500 sarrera berri baino gehiagorekin, bai museoaren bildumetan, bai argazki-funtsean.

Aurreko urteetan bezala, gure funtsen prebentziozko kontserbazioa egin dugu, hainbat piezaren egungo egoerari buruzko txostenak eginez, eta pieza bakoitzak behar duen zaharberritze-maila, zaharberritzea berehalakoa izan behar den edo pieza bakoitzaren narriadura-maila adieraziz.

Pieza nabarmenen garbiketak egin dira, egungo egoera hobetzeko, bai eta materiala galduta zuten marrazkien eta irudien gainean egindako zaharberritze-lan batzuk ere. Prozesu hori Leioako Arte Ederren Fakultateko praktiketako ikasleek egin dute, Leioako campusean arte garaikidearen kontserbazioari buruz egiten den masterra ematen duten irakasleek gainbegiratuta.

Bestalde, tailer didaktiko berriak antolatu ditugu eta, horrela, gure eskaintza handitu dugu, Gabonetarako tailer espezifikoak sortuz, baita Museoen eguna ospatzeko tailer bat eta astialdiaz gozatzeko tailer batzuk eta eguneko zentro eta ospitaleetarako tailerrak ere. Eskaintza didaktiko berri honen barruan, gure bi *escape room* edo ihes-aretoak sustatu eta horien zabalkundea egin dugu museoko sare sozialen bidez, aretoen gaiak iragarrita: ikurrina eta Alava sarea.

Gure eskaintza didaktikoa jende gehiagori zabaldu diegu, hitzaldiak, dokumentalen emanaldiak eta abar eskainiz.

Beste erakunde batzuetako hainbat erakusketatan parte hartzen jarraitu dugu, gure funtsen zati bat lagata, eta hainbat erakunde eta museotako erakusketa iraunkorretara objektuak ekartzen.

Aurten zortzi unibertsitate-ikasle izan ditugu praktketan. Horietatik hiru lan-merkatura igarotzeko beken programari atxikita egon dira, EHUko Arte Ederretako eta Gizarte Zientzietako fakultateetatik etorrira, bai Leioako campusetik, bai Gasteizko campusetik. Hainbat lan egin dituzte, bai katalogazio-lanak, bai Museoaren eguneroko jardueratik sortutako eguneroko lanak, bai museoko piezetako batzuk zaharberritzea.

«Agiri Kulturala» Arte Ederretako Fakultatearen programa lantzen jarraitu dugu. Dokumentu horrek aukera ematen du, kultura-pasaporte gisa erabiliz, ikasleek ekimen askotan parte har dezaten: erakusketak, tailerrak, mintegiak, hitzaldiak... estimuluak, esperientziak eta ezagutzak jasota. Gainera, harreman zuzena dute mundu profesionalarekin, arlo guztietan. Horrela, urte akademikoa amaitzean, ikasle bakoitzaren curriculum osagarria islatzen duten ziurtagiriak ematen dira, ikasle bakoitzak curriculumetik kanpoko prestakuntza pertsonalizatua eratu ahal izan dezan dagozkion graduako edo graduondoko ikasketak egiten dituen bitartean.

Unibertsitate-esparruan, gure jardueren publizitatea egiten jarraitu dugu, UPV/EHUko fakultateek ikasleekin eta ikasle ohiekin dituzten bideetatik; horrela, gure eskaintza zuzenean iristen zaie, eta aukera gehiago eskaini dugu unibertsitate-esparruan.

Sabino Arana Fundazioaren sare sozialetan barreiatutako informazioetarako irudiak erabiltzen jarraitu dugu, baita Fundazioan egindako ekitaldietarako ere, eta gure argazki-funtsarekin parte hartu dugu DEIA egunkariak argitaratzen duen «Historias vascas» sailean, baita hainbat ekoiztetxerekin ere, dokumentalak, bideoak... egiteko.

2024an, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, Museoen Zerbitzuaren bitartez, museo bakoitzaren ondarea zabaldu zuen, Museotik eta Kulturklik plataforma berrien bidez. Bertan, Eusko Jaurlaritzako museoaren sarea osatzen dugun museo bakoitzaren kultura-ondarea zabaldu genuen.

«Nor gara gu?» Museoaren erakusketa iraunkorrari dagokionez, «Bitxiak» espazio berria sortu dugu, eta bisitarien harrera bikaina izan du.

## 2. Katalogazioa

Aurreko urteetan bezala, UPV/EHUko Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren eta Arte Ederren fakultateetako ikasleak izan ditugu gurean. Azkenei dagokienez, Kultura ondasunak kontserbatu eta zaharberritzeko Graduako eta Arte garaikidea kontserbatu eta erakusteko Masterreko ikasleek jardun dute lanean fundazioan. Horiek guztiek Eusko Jaurlaritzak 3. eta 4. mailako ikasleentzat ematen dituen laneratzeko bekei esker aritu dira museoan. 2023an, lau bekadunek jardun dute apiriletik ekainera, horietako bakoitzak 360 orduko arduraldia bete duela.

Ikasle horiek 2.300 ordu baino gehiago eman dituzte digitalizazioan, deskribapen teknikoan, hainbat funtsetako irudiaren tratamenduan eta gure pieza batzuen zaharberritzean.

Bestetik, funtsak antolatzen, inbentarioan sartzen eta katalogoan jasotzen jarraitu dugu lanean:

**Argazki-funtsa.** Aurten jasotako 200 argazki baino gehiago erregistratu, katalogatu eta «Sabino Arana Fundazioa» deritzon moldea txertatu diegu irudioi. Horrez gain, beste dohaintza bat egin du Iparragirre S.A. argitaletxeak (DEIA egunkariaren editorea), eta 50.000 negatibo baino gehiago jaso ditugu, 1977 eta 2000 urteen artean Bizkaiko hainbat lekutan izandako gertaerak jasotzen dituztenak. Horietatik 14.500 negatibo baino ez ditugu inbentarioan jaso. Hauxe izan da gainerako argazki-funtsetan egin dugun jarduketa:

- Norbanakoek egindako dohaintzen funtsetan gordetako argazkiak erregistratzea, katalogatzea, digitalizatzea eta irudioi moldea txertatzea.
- Erregistratutako irudien deskribapen fisikoa egitea eta kontrastea hobetzea.
- Identifikatzaile, egungo egoera, kopien kopuru eta beste ezaugarri batzuk inbentarioan jasotzea.
- Irudiak indexatzea, zeini dagokion testu-fitxaren arabera.
- Tamaina, egungo egoera eta abarren arabera, irudiak euskarri egokietan jartzea, argazki-albumetan gordeta eta hainbat tamainatako zorroetan –pH neutrodunak eta argazkiari egokitutakoak– sartuta.

Hogeita negatibo-erroilu baino gehiago eskaneatu dira, 200 irudi baino gehiago biltzen dituztenak. Irudi horiek era digitalean tratatu dira, eta irudi bakoitza erregistratu eta katalogatu da. Halaber, Begoña de la Sotaren irudi argitaragabeak biltzen dituen album bat katalogatu eta digitalizatu da, 1925etik 1940ra bere bizitzako hainbat une biltzen dituzten 200 irudi argitaragabe baino gehiago dituenak.

**Arte grafikoak.** Kartel eta eranskailuen atala: eranskailuen atalean jasotako 600 ale baino gehiagoren inbentarioa lantzen jarraitu dugu, eta, argazki digitalak eginez, horiek guztiak erregistratu ditugu.

Halaber, plano-ontzietan eta melinex erabiliz gorde dira 300 kartel baino gehiago.

Posta-txartelen atalean, 300 postal berri baino gehiago katalogatu eta digitalizatu dira, bai Euskadiko paisaiei dagokienez, bai munduko gainerako tokiei dagokienez, 60ko hamarkadan datatuak.

Atal honetan, Arte Ederren Fakultateko Kultura ondasunak kontserbatu eta zaharberritzeko Graduoko ikasleek eta Arte garaikidea kontserbatu eta erakusteko Masterreko ikasleek jardun dute lanean, praktikaldian. Erregistroak inbentarioan jaso dituzte aipatutako ikasleok eta euron kontserbazio-egoera ebaluatu dute.

**Dekorazio-arteak.** 250 objektu baino gehiago berrantolatu eta berriro kokatu ditugu. Arte Ederren Fakultateko praktiketako ikasleek jardun dute zeregin horietan. Gainera, gai berriak erregistratu eta katalogatu dira, eta ale batzuen garbiketa berezia egin dute.



**Pinakoteka.** Museoan aurten jaso ditugun pieza berriak, 300 baino gehiago, katalogatu eta instalatu dira. Arte Ederretako Fakultateko praktiketako ikasleek egin dute lan hori.

**Ehun-funtsa.** 2024ko ekitaldiaren barruan, gure erakundera heldu diren ale berriak aztertu, inbentarioan jaso eta katalogatu dira.

**Prebentziozko kontserbazioa.** Atal honetan, pH neutroko materialak erabiliz bilgarri espezifikoak sortu dugu pieza batzuentzat.

Gaur egun, 2024an jasotako dohaintzen inbentariatzen eta dagozkien euskarrietan instalatzen jarraitzen dugu. Ildo horretan, funts desberdinetarako berreskuratutako materialak nabarmendu behar dira: argazkiak, arte grafikoak, dekorazio-arteak eta abar.

### 3. Zaharberritzeak

2024an, zeregin hauek burutu ditugu:

- Urtearen barruan, museora heldu diren guztiak identifikatzea eta erreserban gordetzea.
  - Inbentario orokorrean alta eman ostean, fitxa teknikoa bete da.
  - Pieza guztietan, funtsaren erregistro-zenbakia identifikatzen duen etiketa itsatsi da.
  - Piezaren kontserbazio-egoera aztertu da.
  - Museoaren instalazioetan kokatu da.
- Gordetako piezen prebentziozko kontserbazio-lanak.
  - Artxibatutako kaxen eta tiraderen barrualdea ikuskatzea, guztia behar den moduan dagoela egiaztatuz eta, hainbatetan, piezen jarrera aldatuz.
  - Datuen kontrola egitea, fitxa informatikoa eta pieza alderatuta.
- Bildumaren kokalekua aldatu denez, beste biltegi txiki batera eraman denez, piezen azterketa xehatua egin da; batez ere, egungo kontserbazio-egoera ebaluatu da eta birkatalogazioa ere egin dugu, pieza bakoitzari kokaleku berria esleituta eta datu hori pieza bakoitzaren fitxan aldatuta.

Honako zeregin espezifiko hauek ere egin dira:

1. Arte grafikoen funtsa garbitu dugu, eranskailuen saila, hain zuzen ere, atzealdetik eta aurrealdetik busti gabeko kotoi-zotzak erabiliz. Kasu batzuetan, borragoma ere erabili da atzeko aldean.
  - 1.2. Argazkiak digitalizatzea eta sailkatzea.
  - 1.3. Akatsak kentzea, pisua eta digitalizazioa erabiliz.
2. Kartzelan egindako Manuel Campomanesen marrazkia [24/0875] garbitu dugu, xurgatze arinez eta brotxa leuna erabiliz, markoa desmuntatuz eta hura garbituz, barrualdea nahiz kanpoaldea.
3. Bildumako pieza batzuetarako bilgarri espezifikoak egin ditugu, hobeto kontserbatzeko.

4. Ibarrolaren 92/0502 eta 92/0503 grabatueta, gainazaleko garbiketa mekanikoa egin da brotxa eta Wisharb goma erabiliz, eta euskarria finkatu da, ebakiak eta urradurak lehengoratuz paper japoniarra eta uretako metilzelulosa baliatuz.
5. Sabino Aranaren marrazkian [07/1392], gainazaleko garbiketa mekanikoa egin da brotxa eta Wisharb goma erabiliz, eta euskarria finkatu da, ebakiak eta urradurak lehengoratuz paper japoniarra eta uretako metilzelulosa baliatuz. Azkenik, Winsor & Newtonen akuarelak erabiliz, integrazio kromatikoa egin da.
6. 24/0386 bandera Ajuria Enean jarri zen lehenengo ikurrina da, armarririk gabe. Pieza pisuak erabiliz lisatu da, toles dezente baitzituen.
7. 24/0194 tapiza, zakuzko teila baten gainean egindakoa eta gurutze-puntuz brodatua. Hainbat trabilla kendu behar izan dira, piezan tentsioa eragiten zutelako eta, ikusgai jartzean, sufritu egiten zuelako.
8. Mexikon egindako 24/0946 tapizari dagokionez, bi oihalen gainean brodatuta, zati bat desjosi behar izan da, piezak pairatzen zuen tentsioa lasaitzeko, hondatzen hasita zegoen eta.

#### 4. «Nor gara gu?» erakusketa erdi-iraunkorra

Euskal Abertzaletasunaren Museoak Ibañez de Bilbao kaleko 16. zenbakian («Sabin Etxea») jarri duen erakusketa iraunkorra bisitatzeko ordutegi luzeagoa eskaini da eta asteko egun guztietan zabalik egon da; asteburu eta jaiegunetan, berriz, aldeztu aurretik hitzordua eskatuta bisitatzeko egon da. Gainera, 2024an, doan bisitatu ahal izan da museoa abuztuaren azken astean.

Erakusketan, gure historiaren hainbat une historiko biltzen dira, eta aurten bi mila bisitari baino gehiago etorri dira ikustera, Euskadikoak ez ezik, Espainiakoak eta, batez ere, euskal diasporako kideak (batik bat, Mexikotik eta Argentinatik etorritakoak), baita Estatu Batuetakoak eta Japoniakoak ere, guztiek gure historia sakonago ezagutzeko interesa izan baitute. Guztira, 2.180 pertsonak bisitatu dute erakusketa; horietatik 1.285 emakumezkoak eta 895 gizonezkoak izan dira.

Aurten, «Bitxiak» izeneko erakusgune berria sortu dugu, 'gure bitxiak' erakusteko. Joan den uztaitan ireki genuen, hilabete bateko tartean gure biltegietan ditugun objektuak ikusgai jarrita, bisitariak gure bilduma hobeto ezagut dezan. Edukia webgunera ere eraman dugu, pieza bakoitzak bi bideo dituela. Lehenengoan, Mireia Zarate Fundazioaren presidentek dena delako hilabetean ikusgai egongo den piezaren berri ematen du, eta bigarren bideoan, piezarekin zerikusia duten pertsonen testigantzak jasotzen dira.

Bisitatzerako etorri direnek harrera bikaina egin diote erakusgune berriari eta aurrera jarraitzerako gogatu gaituzte.

2024. urtean, gure sare sozialen bidez erakusketa honetan ikusgai dagoen museoaren bildumako pieza batzuk ezagutzera eman ditugu, baita bildumaren atalean museoaren bildumako 490 objektu baino gehiago igo ere, publiko orokorrak kontsultatzea izan dezan.

Aurten, audiogidak erabiliz egiten diren bisitak sustatu ditugu, erakusketaz gozatzeko modu pertsonalagoa eskaintzen baitu eta, horrez gain, oso harrera ona izan baitu bisitarien artean.

Beste ikusle batzuek ere euren kabuz egiten dute bisita, QR kodeen laguntzaz. Kode horiei esker, ikusmen-ahalmen murrizta duten pertsonak erakusketaz goza dezakete lau hizkuntzatan, kodeoi lotutako soinu-fitxategiak baliatuz, bai eta erakusketan jorratzen dugun espazio bakoitzari buruzko informazio gehiago ematen duten artikulua baliatuz ere.

## 5. Aldi baterako erakusketak eta lankidetzak

### 5.1. «Mendirik Mendi. Euzko Mendigoizale Batza» erakusketaren ibiltaritza

2024an, Euzko Mendigoizale Batzaren mendeurrena gogoratzeko, «Mendirik mendi. Euzko Mendigoizale Batza» antolatu dugu, Sancho el Sabio Fundazioaren batera eta Fundazioaren Gasteizko egoitzan inauguratu dugu.

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak berriren berri sortu duen erakusketa hau joan den urtean inauguratu zen, eta dagoeneko ehunka pertsonak bisitatu dute. Gerra Zibilaren eta diktaduraren errepresioa jasan zuten eta, kasu askotan, erbestera joan behar izan zuten elkarte horretako kideak omentzea du helburu. «Ehun urtetik gorako elkarte hau oso ezezaguna da gizartearentzat eta herritarrei eman nahi diegu aditzera, erakusketa hau antolatuta

Erakusketak kontatzen duenez, abertzaletasunaren hasiera-hasieratik, euskal gazteria Euskal Herrian galtzen ari ziren nortasun kolektiboaren ezaugarriak berreskuratzen saiatu zen, besteak beste, euskara eta bertoko kultur adierazpenak. «Mendizaletasunaren bidez, gazte horietako askok modu ezin hobea aurkitu zuten Euskadiko txoko guztiak ezagutzeko, euskal munduan eta tradizioetan murgiltzeko, eta sabindar ideiak gailurrik garaienetaraino eta herrixkarik urrunenetaraino eramateko. Horrela sortu ziren mendigoizale-taldeak, hots, «abertzaletasunaren aldeko mendizaleak» antolatzaileek azaldu dutenez.

Erakusketa 8 panelek osatzen dute. Testuen egilea Aitor Miñambres dugu, Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenezko Museoaren zuzendaria. Erakusketaren osagarri, objektuak dokumentuak eta argitalpenak ere erakusten dira, bai eta Sancho el Sabio Vital Fundazioaren dokumentu-funts oparoak lagatako dokumentazioa ere.

Erakusketa zortzi ataletan egituratuta dago:

1. 'Mendigoizaleak', herria maite duten mendizaleak eta euskal kulturaren hedatzaile handiak.
2. 'Askatasunaren eguzkia basotik irteten da', Mendigoizale Batzari buruzkoa. Elkarteak 1921ean eratu zen, Euzko Gaztedi-ren federazioaren babesean, eta lurraldeen arabera antolatu zen (18 talde Bizkaian, 10 Gipuzkoan eta 1 Araban).
3. 'Gazteria martxan' atalak mendigoizale abertzaleen jardura erakusten du. Elkarteak, batik bat, bi helburu zituen: Euskadiko geografia ezagutzea eta ariketa egitea, oso ohitura osasungarriak gazteentzat.

4. 'Itxaropen-garaiak': elkartearen banderan, San Andresen gurutze berdea ageri da, zuriaren gainean, guztia lauki gorri baten barruan.
5. 'Zorigaitzaren atarikoa'. Garai batean, sekulako zalaparta politiko eta soziala izan zen, Espainiako oligarkek lehengo pribilegioei eutsi nahi zietelako eta ezker iraultzaileak, berriz, benetako sozialismoa ezarri gura izan zuelako.
6. 'Mendigoizaleak bake-sasoian, gudariak gerra-garaian'.
7. 'Gudarien batailoiak', Euzko Mendigoizale Batza bi batailoitan sartu zen: 'Lenago il' eta 'Zergaitik ez', Mikel Aierdi eta Eugenio Orbegozo komandanteen aginduetara. Ekintza-burua Ángel Agirretxea izan zen eta 1.200 mendigoizalek bat egin zuten.
8. 'Klandestinitatea eta askatasuna'. Franco diktadorea hil ostean, berriro hasi ziren igotzen deiar-mendietara.

Erakusketaren edukia XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan jazo zen, mugimendua indar handiz hedatu zela, unean uneko egoera politikoak bultzatuta edo motelduta. Azkenean, Euzko Mendigoizale Batza izena erabili, euskal abertzaletasunaren zutabe sendoenetako eratu zen, Emakume Abertzale Batza, Euzko Gaztedi edo Euzko Langileen Alkartasuna antolakundeekin batera.

Primo de Riveraren diktadurak, Bigarren Errepublikaren etorrerak eta mugimenduaren barruko ñabardura ideologikoen baldintzatu zuten gazte idealista horien jardura etengabea, klandestino edo legezkoa: euskararen hedapena, kantu eta dantza tradizionalen berreskurapena, txangoak, antzezlanak, mitinak eta propaganda-jarduerak, besteak beste. Gerra Zibilean, gudarien batailoietan sartu ziren, 1936an eta 1937an Euskadi mendean hartu nahi zuen armada frankistari aurre egiteko. Eta porrot militarren eta diktadura frankistaren ondotik, belaunaldi euskaltzale berriek jaso zuten mendigoizaleen ondarea, garai berrietara egokituta.

2024an, leku hauetan izan da ikusgai erakusketa:

**Gasteizen**, 2023ko abenduaren 27tik 2024ko otsailaren 29ra bitartean, 98 pertsona bertaratu ziren, horietatik 80 gizon eta 18 emakume.

**Bilbon**, maiatzaren 18tik urriaren 31ra bitartean, 320 pertsona bertaratu ziren, horietatik 110 gizonak eta 210 emakumeak zirela.

## 5.2. «Emakumeak Aberria Eginez. EAB» erakusketaren ibiltaritza

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatu du erakusketa *Emakume Abertzale Batza*-ren (EAB) sorreraren mendeurrena mendeurrenaren kariatz. Erakusketak duela 100 urte gizarte-eredu berri baten alde egin zuten emakumeek Euskadiren alde egindako jarduerak eta bizipenak ikusaraztea du helburu, ekimen eta lan ugari bultzatu zituztela.

Emakume Abertzale Batza 1922an sortu zen *Euzko Gaztedi*-ren babesean. EABk hasieratik erakutsi zuen bere arduretako bat aberriaren aldeko propaganda, hezkuntza, euskararen



irakaskuntza, elkartasun zerbitzuak eta gizarte laguntza zirela. Mugimendu feminista horrek euskal emakume abertzaleak ahaldundu zituen, eta eragin handia izan zuen emakumeen ondorengo belaunaldietan eta, oro har, euskal abertzaletasunean.

Objektuz beteriko beira-arasek eta 24 panelek osatzen dute erakusketa, sei gai zabaletan antolatuta. Multzo horietan, elkartearen bizialdi osoan garatutako lana eta pentsamendu politikoa batzen dira: 1) EABren sorrera 2) EABren loraldia; 3) 'Jaungoikoa eta Lagi Zarra' (JEL) doktrina; 4) EAB eta hezkuntza; 5) EAB eta gizarte-laguntza eta 6) EAB gerran eta erbestaldian.

Erakusketaren bisitaldiaren amaieran, emakume gogoangarri haien lekukotzen berri ematen duen bideo bat proiektatzen da.

2024an, leku hauetan izan da ikusgai erakusketa:

**Amorebieta-Etxanon**, otsailaren 27tik martxoaren 17ra bitartean, 285 pertsona bertaratu ziren: 130 gizon eta 155 emakume.

**Zarautzen**, martxoaren 20tik apirilaren 7ra bitartean, 82 pertsona bertaratu ziren, horietatik 33 gizonezkoak eta 49 emakumezkoak zirela.

**Laudion**, apirilaren 13tik 30era bitartean, 195 pertsona bertaratu ziren, horietatik 60 gizonezkoak eta 95 emakumezkoak zirela.

Herri horretan, bi bisita gidatu egin dira erakusketa ikusteko apirilaren 17an eta 24an. 109 pertsona bertaratu ziren, horietatik 40 gizonezkoak eta 69 emakumezkoak zirela.

### **5.3. «Euskal Kirolariak 2024» erakusketa**

2024an Parisen egin ziren XXXIII. Olinpiadak direla eta, Euskal Abertzaletasunaren Museok «Kirolariak» erakusketa aurkeztu nahi dizue, nazioarteko kirolean arrastoa utzi duten gure kirolari paralinpikoei egindako omenaldia. Erakusketa honen bidez, aparteko atleta horien ahalegina, dedikazioa eta hobetzeko grina gertutik ikusteko modua eman nahi diegu euskal herritarrei eta, orobat, atleta paralinpikoei eman merezi duten ikusgarritasuna.

26 panelek osatzen dute erakusketa, eta bertan, eremu paralinpikoan ditugun ordezkari onenen bizipenak eta esperientziak azaltzen dira, besteak beste, Agurtzane Egiluz, Naiara Rodríguez, Laura Ugarte, Amagoia Arrieta, Iñigo Llopis, Mikel Erdozain, Nahia Zudaire, Higinio Rivero, Ander Cepas, Iker Sastre, Fernando Michelena, Rakel Mateo eta Asier Garcíaarenak. Istorio bakoitzak kirolari horiek erakutsi duten kemena, borroka eta kirolarekiko grina islatzen ditu, norberaren erronka guztiontzat eredugarria den kirol-lorpen bihurturik.

Sabino Arana Fundazioan, funtsezkoa deritzogu kirolari horien aurpegia erakusteari, haien istorioak zuzenean ikus-entzuleen eskura jarrita. Dauden tokiraino iristeko egin duten ahalegina, dedikazio nekazina eta kirolarekiko maitasuna dira erakusketa honen bizigarriak.

Erakusketa Bilbon jarrita dago, Museoaren egoitzan, 2024ko abenduaren 30etik 2025eko apirilaren 30era arte.

Gure pieza batzuk lagata, museo eta erakunde hauetako erakusketa iraunkorretan parte hartzen dugu:

- **Museo de l' Exili**
- **Bakearen Museoa Fundazioa**
- **Euskal Poliziaren Museoa**
- **Eusko Legebiltzarra**

## 6. Tailer didaktikoak

Tailerren helburu nagusiak hauek dira: sormena garatzea, haurren artean arte plastikoak sustatzea eta ezagutzea, euskara eta euskal historia sustatzea eta taldean nahiz bakarka lan egitea.

Aurten hainbat liburuxka sortu ditugu formatu digitalean gure eskaintzen berri emateko: ikastetxeetarako tailer didaktikoak, aisialdiko tailer didaktikoak eta Gabonetako tailer berariazkoak.

2024an, 96 jarduera didaktiko egin ditugu, dozena bat ikastetxe baino gehiagoren parte-hartzearekin, eta Leioako campuseko Arte Ederren Fakultateko unibertsitarioen parte-hartzearekin. Guztira 1648 pertsona bertaratu dira, sexuaren arabera banakatuta: 829 gizonezko eta 819 emakumezko, 4 eta 21 urte bitartekoak.



### MUSEOEN EGUNA. ICOM

Museoen eguna ospatzeko, maiatzaren 18an, «Museoak hezkuntza eta ikerketaren alde» goiburuaaren ildoan, nahi zuen orok gure Museoa bisitatu eta «Mendirik Mendi. Eusko Mendigoizale Batza», ehun urte bete dituen elkartearen historia eta «Nor gara gu?» erakusketa iraunkorra ezagut zitzan gonbidatu genituen. Azken horretan, objektu bitxi bat nabarmendu genuen: Euskal Loteria joko, ehun hitzez osatua, euskara irakaslerik gabe ikasteko asmatua.

Kartoizko kutxa batean dago eta koloretan inprimatutako 15 kartoitu, fitxak jartzeko 4 kartoitu txikiagoz eta euskara irakurtzeko arauak dituen orri batez hornitua.

Federico Belaustegigoitiak 1930 inguruan sortutako joko da; «ASMAKIZUN BERRI-BERRIA, euskara jolastuz eta maisurik gabe ikasteko. Oso dibertigarria, oso erraza. Familian, eskolan edo solasaldietan erabiltzeko».

Aleak bi bonbardaketa jasan zituen, eta asko erabili zen diktadura garaian lagunekin eta senideekin egindako bileretan, euskara klandestinitatean sustatuz. Belaunaldiz belaunaldi erabili zen.



### MASTERCLASSa: EHUN-KONTSERBAZIOA

2024an, Leioako campuseko Arte Ederren Fakultateko irakasleek eskatuta, berriro ekin diogu *masterclass* honi, unibertsitateko jendeari zuzenduta.

36 pertsonak parte hartu dute, horietatik 32 emakumeak eta 4 gizonak zirela.



### **MASTERCLASSa: KARTOIZKO BILGARRIAK**

2024an, unibertsitateko ikasleentzat antolatutako jarduera didaktikoak egiten jarraitu dugu, master class direlako jardunaldi batzuen bidez. Horietan, Leioako campuseko EHUko Arte Ederren Fakultateko ehun ikaslek baino gehiagok hartu dute parte.

Jardunaldi hau erabiliz, Museoak gai praktiko batzuk jorratu nahi ditu: nola egin bilgarri espezifikoko batzuk baliabide gutxirekin?, Nola asmatu eta nola sortu bilgarri espezifikokoak gure bildumako objektu jakin batzuk gordetzeko. Bertaratutakoek kutxak, karpetak eta garraiorako bilgarriak sortu zituzten, kartoia oinarri hartuta, azidorik gabeko xaflak baliatuz. Master class bat egin da eta 33 pertsonak hartu dute parte horretan; horietatik 28 emakumezkoak ziren 5 gizonezkoak.



### **ESCAPE ROOM**

Aurten, areago landu dugu gure bi ihes-aretoen zabalkundea, gaztelaniaz zein euskaraz egin daitezkeenak, bi joko edo erronka eskainita. Lehenengoan, ikurrinaren jatorrizko diseinua aurkitu eta babestu beharko da, ustekabeko sute batetik libratzeko, sute horrek dokumentua betiko galaraz baitezake, eta, horrekin batera, euskaldunen memoria kolektiboaren zati bat.

Bigarren erronkan, 'Alava sarea espedientea' izenekoan, tropa frankistek okupatutako Euskadira joango gara. Jolas horretan, Bilboko Verdes liburu-dendan ezkutaturik dagoen isilpeko informazioa seguru jartzea da helburua, polizia frankisten eskuetara heldu aurretik; izan ere, informazioa atzemanaz gero, sareko kideak harrapatuko lituzkete eta, gainera, Duesoko espetxean gatibu dauden ehunka preso hilko lituzkete.

'Ihes-areto' horren berezitasuna hauxe da: benetako gertaera historikoetan oinarritzen dela. Azken batean, pedagogia egiteko beste modu bat da, jolasa eta aisialdia erabiliz, Euskadiko historian jazo diren gertakizun esanguratsuak ezagutarazteko xedez.

2024an, berrogeita hamar bat jolas egin ditugu eta 216 pertsona hurreratu dira; horietatik 126 emakumeak izan dira eta 90 gizonak.

Estatuko Escape Room Awards lehiaketaren barruan, 2024ko sarietarako hautatuak izan gara. Sari horiek Madrilan banatuko dira, 2025eko apirilean.

## **7. Hitzaldiak / Dokumentalak**

2024an, hitzaldi ziklo berriak hasi ditu Museoak, eta erantzun bikaina jaso dugu parte-hartzaileen aldetik.



### **Mugarik gabe zikloaren dokumentala: BIKO UHARTEKO UME GALDUAK**

Beste sasoi batean Fernando Poo izenez ezagutzen zen uhartean eta gaur egun Bioko izena duenekoan (Ekuatore Gineako), espainiarren kolonizazioari eta horrek *bubi* herrian izan zuen eraginari buruzko ikerketa-lana da.

Angie Carlota Lohoba dokumentalaren ekoizleak eta Edmundo Sepa Bonaba soziologo, idazle eta ikerketan aholkulariak parte hartu zuten, ERIA TVk ekoitzi eta Barbara Bohula Michelsek zuzendutako dokumentalaren aurkezpenean. Dokumentalak *bubi* herria ia desagertzearainoko sarraskiaren benetako arrazoa azaltzen du, Ekuatore Gineako Fernando Poo uhartearen espainiarraren kolonizaziotik abiatuta, *bubiak* Europan eta Amerikan esklabo bihurtzeko bahitu zituztenetik, hain zuzen, XV. mendetik eta XX. mende hasierara arte. Lehen pertsona erabiliz kontatzen diren hainbat lekukotasunen bidez, dokumentalak azaltzen du afroamerikar talde batek, bubien ondorengoek, benetako jatorria aurkitu zutela DNA proba baten bidez.

Ziklo honetan, munduan barreiatuak dauden sentzibilitate ugariako istorioak ezagutarazi nahi ditugu, bai gertaera historikoei buruzkoak, bai gaur egungoei buruzkoak.

62 pertsona bertaratu ziren, horietatik 26 emakumeak eta 36 gizonak zirela.



### **Espedizioak zikloaren dokumentala: EXPEDICIÓN GROENLANDIA**

Atal honetan, espedizioak eta balentria horien protagonistak ikusarazten ditugu, abenturan laguntzen diguten ikus-entzuleak esperientzia horietan murgil daitezten.

2019ko ekainean, lau euskal abenturazale, Aurelio Sanz, Vicente Castro, Pablo Martin eta Zigor Egia, Islandiako El lorana itsasontzian abiatu ziren Groenlandiara, eskaladan aritzeko asmoz. Abentura Reykjavik hiriko portuan hasi zen, 2019ko ekainaren 27an. Hortik, iparralderantz joan ziren, itsaso txarrari aurre eginda, eta depresio batzuen ondorioak jasanda. Azkenean, Groenlandiako kostaldea ikusi zuten, izozmendi edo *iceberg* direlakoekin talka ez egiteko.

Azkenean, Kangerlussuaqeko fiordora iritsi ziren eta, lehorreratuta, inguruko muino batera igo eta han finkatu ziren. Edonora begiratuta ere, ertzak, muturrak eta gailur zorrotzak. Zuhurtziaz jokatu, bidai bat eraman zuten, egun batzuetan bizirik irauteko, eta errifle bat, hartz zurien erasoetatik babesteko.

Bi igoaldi egin zituzten uztailaren 8an eta 9an. Hasteko, Keglebjerg (994 m) mendiaren tontorrera igo ziren, besteren bat inoiz haraino iritsi den jakin barik. Nolanahi ere, abenturazaleek hego-ekialdeko ertzetik igo ziren, itsasontzitik 1.000 metroko desnibela eta bosgarren graduko zailtasuna zuelarik.

Bigarren mendiaren gaineko aipamenik ez zuten aurkitu, eta *Loaran* (1281 m) izena jarri zioten. Ekialdeko ertzetik egin zuten igoera, gehienez ere, bosgarren + mailako zailtasunari helduta.

«Expedición Groenlandia» dokumentala Zigor Egiaren ideia originala da; Aitor González Iturbe dugu zuzendaria eta Zigor Egiak eta Aurelio Sanzek ekoitzi dute.

62 pertsona bertaratu ziren ekitaldira, horietatik 26 emakumeak eta 36 gizonak zirela.



## **Guztiantzako kirola zikloa: EUZKO MENDIGOIZALE BATZA. 100 URTE**

Sail honen helburua kirola sustatzea da, gizarte aktiboago eta iraunkorrago baten garapena sustatzeko funtsezko tresna gisa. Era berean, kirol-mota guztiei ikusgarritasuna eta protagonistei ahotsa ematea da kontua.

Zigor Egia alpinista eta Euskal Mendizale Federazioko (EMF-FVM) presidentek, Ricardo Hernani lehendakariordearekin batera, ehun urteko federazio honen historiara HURRERATU gintuzten. Euskal Mendi Federazioak, batik bat, segurtasuna sustatzen du mendiko kirolean.

57 pertsona bertaratu ziren, horietatik 33 emakumeak eta 24 gizonak zirela.

## **MENDIRIK MENDI. 100 URTE erakusketari lotutako hitzaldia**

«Mendirik Mendi» erakusketaren jarduera osagarri gisa, Aitor Miñambresen hitzaldi bat eman zuen, ehun urteko talde honen historiari aritzeko.

66 pertsona bertaratu ziren, horietatik 45 gizona eta 21 emakumezkoak zirela.

## **EMAKUMEAK ABERRIA EGINEZ. 100 URTE erakusketari lotutako hitzaldia**

UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko Karmele Perez Urraza, Begoña Bilbao Bilbao, Gurutze Ezkurdia Arteaga (*Garaian* ikerketa taldeko kideak) erakusketaren komisarioen eskutik, hitzaldi bat eta hiru bisita gidatu egin ziren, ehun urteko emakume-elkarte horrek herrialdearen garapenean eta emakumeen eskubideetan izan zuen garrantzia jarduteko.

192 pertsona bertaratu ziren ekitaldiotara, horietatik 102 emakumeak eta 90 gizonak zirela.

## **Gazte ekintzaileak zikloa: USTEKABEKO NORABIDE-ALDAKETA, NIRE BIZITZA HELMUGA BAKAR BIHURTU ZUENA**

Ziklo honen bidez, aukera eman nahi diegu prestakuntza akademikoa amaitu ondoren aurrera ateratzeko euren burua berrasmatu behar izan duten gazte guztiei, esperientziak eta bidean aurkitu dituzten arazoak kontatu diezazkiguten, bidenabar, horrek guztiak beste gazte batzuei lanean hasteko balio diezaien.

Eder Aurre moda diseinatzaile gaztearen eskutik, Portugaletekoaren bizipenak ezagutarazi genizkien saiora etorritako guztiei.

Eder talentuaren, grinaren eta ekintzailearen adibide garbia dugu Euskadin. Gaztea izan arren, egungo modaren izen nabarmenetakoa izatea lortu du hasiberrien artean, eta jaioterriaren izena ere eraman du Europa osoko ibiltoki eta ekitaldiotara.

Kanpoan lan egiteko aukera ugari izan arren, Eder Aurrek jaiotze-lurraren aldeko apustua egin eta Euskadin geratzea erabaki zuen, eta hortik garatu du gazte ekintzailearen alderdia.

Prestakuntza amaitu ondoren, hainbat markarentzat lan egin zuen, eta «Creamoda» saria lortu zuen lehen bildumari esker. Lehen lorpen horri esker, ate asko zabaldu eta aintzatespen ugari jaso zituen, hala nola «Getxo Moda» saria, «Euskal Diseinatzaile Gazte Onena», «estatuko Diseinatzaile Gazte Onena», eta Austriako «Assembly Graz» lehiaketaren «Bilduma Onenaren» saria.

38 pertsona bertaratu ziren ekitaldira, horietatik 25 emakumeak eta 13 gizonak zirela.



### **Kontserbazioari buruzko jardunaldiak: Ehungintza-kontserbazioaren V. jardunaldiak**

Laneratzeko bidean espezializazio-esparru desberdinak ezagutzeko xedez, ikasleei beharrezko tresnak eskaintza helburu duten jardueren esparruan, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak hitzaldi bat antolatu zuen bosgarren urtez jarraian EHUko Arte Ederren Fakultateko ikasleentzat, Museoko materialen ehungintza kontserbatzeari buruz.

Soledad Santistebanek, ehungintzaren zaharberritzean espezializatutako adituak, eman zuen jardunaldia, Euskal Abertzaletasunaren Museoako ehun-bilduma oinarri hartuta.

33 lagunek parte hartu zuten saioan, horietatik 28 emakumeak eta 5 gizonak zirela.



### **Emakume bikainak zikloa: SAREGILEAK ETA NESKATILAK. DESAGERTZEKO ZORIAN DAGOEN LANBIDEA?**

Estereotipoak hautsiz.

Atal honetan, hainbat arlotan nabarmendu diren emakumeen erretratuak erakutsi nahi ditugu. Hain zuzen ere, horien ahaleginari esker, erabilera eta ohitura asko aldatu egin direlako, itxuraz, gizonak menderatzen zuten esparru batean. Hori guztia bitzta jarduera bati eskaini eta lorpen aipagarriak erdietsi dituzten pertsonen eskutik giten dugu.

Atal honen bidez, emakume horien borroka, lana eta kemena ezagutu eta ezagutarazi nahi ditugu, askoren inspirazio-iturri izan direlako.

Euskal Abertzaletasunaren Museoak gonbidatuta, Izaskun Bilbao eurodiputatu ohiak gidatutako hitzaldi batean, Rosa Ispizuak, Begoña Patiñok eta M<sup>a</sup> Carmen Sampedrok, sektoreko hiru langilek, euren lanaren gakoak, lan horren garrantzia eta jardueraren etorkizuna nola ikusten duten azaldu zuten Sabino Arana Fundazioan.

Gizona itsas zabaleko arrantzarekin betidanik lotu izan den arren, egia da emakumeek lehorrean egiten duten lana ere funtsezkoa dela arrantza-sektoreko jarduera asko garatzeko, hala nola sareak konpontzea, arrantzatutakoa deskargatzea, arraina latetan sartzea, saltzea eta abar.

Emakumea funtsezko pieza izan da beti euskal arrantza-sektorean. Arrantzan, sektore guztietan bezala, katebegi guztiek sendoak izan behar dute katea hautsi ez dadin, eta

emakumeek osatzen duten katebegia, zalantzarik gabe, ezinbestekoa da sektore osoaren osasuna zaintzeko.

Alabaina, belaunaldien arteko erreleborik ezak, material sintetiko egindako sareen fabrikazioak eta arrantza-ontzidiaren murrizketak ekarri dute, hein handia, saregile eta neskaten tradiziozko lanbidea apurka-apurka desagertzea. Hala eta guztiz ere, orain ari gara, inoiz baino gehiago, arrantza-sareen artisa-konponketan diharduten emakumeek, egiten duten lana ikusrazten, aukera-berdintasuna, elkartegintza, prestakuntza eta ekintzaitza sustatzen, haien lana aintzatesteko helburuz.

51 pertsona bertaratu ziren ekitaldian, horietatik 34 emakumeak eta 17 gizonak zirela.



### **Itsasoa, berdintasun lurraldea zikloa: ANTONIO CANDINA. KAPITAIN ETA ONTZI-JABEA**

Atal honetan, Eduardo Araujo kazetari eta Onda Vasca irratiko *Itsas Tantik* programaren zuzendariak, itsaso-gaietan adituak, parte hartzen du eskuzabaltasunez.

Itsasoari lotuta egon diren edo dauden pertsonen istorioak eta esperientziak ikusarazi eta ezagutarazi nahi ditugu, hitzaldi baten bidez eta/edo proiektio baten bidez; azkenik, protagonistek eta bertaratutakoek solasean aritzeko aukera izaten dute.

Julian eta Javier Garaizar Candinak, Antonio Candinaren bilobek, bere aitaren istorioa azaldu ziguten.

Antonio Candinak, gazte-gaztetik Plentziako Aranburu familiaren farmaziako mirabe zelarik, argi izan zuen itsasgizona izan nahi zuela.

Lanean ateratako dirua erabiliz, Nautikako ikasketak ordaindu zituen eta oso gazterik hasi zen nabigatzen Nerbioiko Itsas Konpainian. Konpainia horretako zenbait ontziren kapitaina izan zen. 1919an hasi zen enpresaburu gisa, garai hartako beste euskal enpresaburu nabarmenekin batera, eta *Compañía Marítima Bidasoa* sortu zuen. Konpainiak hasiera eman zion Bilbo Handiko itsas eta portu-sektoreari lotutako enpresaburuaren leinuari, gaur egun, laugarren belaunaldiak horretan diharduela.

48 pertsona bertaratu ziren, horietatik 20 emakumeak eta 28 gizonak zirela.



### **Kontserbazioari buruzko jardunaldiak: PREBENTZIOZKO KONTSERBAZIOARI BURUZKO V. JARDUNALDIAK**

Laneratzeko bidean espezializazio-esparru desberdinak ezagutzeko xedez, ikasleei beharrezko tresnak eskaintza helburu duten jardueren esparruan, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak hitzaldi bat antolatu zuen bosgarren urtez jarraian EHUKo Arte Ederren Fakultateko ikasleentzat, Museoko materialen ehungintza kontserbatzeari buruz.

Begoña Aristegui, Arte Ederretako lizentziadunak era ehungintzaren zaharberritzean espezializatutako adituak, eman zuen jardunaldia. Besteak beste, Museo Arkeologiko Nazionalean, Museo Etnologiko Nazionalean, New Yorkeko Guggenheimen, Arte Moderno eta Garaikideko Museoan eta Bilboko Guggenheim Museoan aritu da Aristegui.

Bildumak zaintzen aditua denez, Aristegui Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoan ezarritako prebentziozko kontserbazio-prozesua jorratu du.

31 lagunek parte hartu zuten (28 emakume eta 3 gizon).

## 8. Norbanakoen dohaintzak / Kontsultak

2024ko ekitaldian, 1.300 pieza inguru jaso dira Euskal Abertzaletasunaren Museoan.

Objektu ugari jaso ditugu dohaintzan, sail askotan gordetzekoak: arte grafikoak, dekorazio-arteak, ehun-funtsa...

Hori guztia berrogeita hamar bat norbanakok eta erakundek egindako dohaintzei esker.

Euskal Abertzaletasunaren Museoko funtsak kontsultatzeari dagokionez, 400 kontsulta ingururi erantzun diegu, ondokoek eginda edo horietan erabiltzekoak: norbanakoak, erakundeak, ekoiztetxeak, udalak, aldizkako argitalpenak, telebistako programak, fundazioak, Eusko Jaurlaritza, museoak...

Argazki-funtsari gagozkiola, 530 irudi baino gehiago erabili dira, Facebook eta Instagram sare sozialetan zabaltzeko eta DEIA egunkarian argitaratutako «Historias vascas» saileko artikuluak irudiz hornitzeko.

## 9. Webgunea/Sare sozialak/Flickr

Museoaren web-orria ([www.museodelnacionalismovasco.eus](http://www.museodelnacionalismovasco.eus)) informazioz hornitzen jarraitu dugu. Bertan, museoak antolatutako *Nor gara gu?* erakusketa erdi-iraunkorrari, aldi baterako erakusketei eta museoaren bildumari lotutako eduki guztiak kargatu ditugu. Atal guztietan, bisitarien kopurua igo da aurreko urteen aldean.

Hazkundera gertatu da, segurutik, dohaintzei buruzko informazioa, «Bitxiak» izeneko erakusgune berriari buruzkoa bildumen ingurukoa eta Museoari lotutako informazio guztia egutegian ia egunero igo dugulako.

Webgunearen erabilerak, bai informazioa jasotzeko, bai kontsultak egiteko, nabarmen egin dute gora aurrean; izan ere, hogeita hamarretik gora kontsulta jaso ditugu webgunearen bidez, batez ere, museoaren bildumari dagokionez; aurrean 320 erregistro berri baino gehiago jaso dira eta guztiak ere sartu dira webgunean.

Facebook, Instagram eta Tik Tok webguneetan jarritako iruzkinak 300.000 ingurukoak dira.



Aurten ere Museoak antolatzen dituen jarduera guztiei buruzko informazioa eman dugu aldiro-aldiro Museotik eta Kulturklik; hala, gure jardueren eta bildumen ikusgaitasuna handitu da eskura ditugun plataforma guztietan.

Azkenik, esan behar da 2024an «La ría del ocio» aldizkarian ere kolaboratzen hasi garela. Bertan, gure jarduera guztien berri eman diegu herritarrei, eta jende gehiagorengana iristea lortu dugu.

## 09 SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA

### Sabino Arana Sariak 2023, «modernitate irmoaren» erakustaldia

Sabino Arana Sarien XXXV. edizioa Bilboko Arriaga antzokian egin zen urtarrilaren 28an. Ekitaldian, Antton Valverde musikari donostiarra, Laboral Kutxa-Euskadi Fundazioaren emakumezkoen txirrindularitza-taldea, Euskal Artzainak Ameriketan (EAA), Armando Llanos ikertzaile eta arkeologo gasteiztarra eta Javier Clemente saritu zituzten.

Fundazioaren Patronatuko kideek lagunduta, Sabino Arana Fundazioaren (SAF) presidente Mireia Zaratek bost golardoak banatu zituen; gaurkoaren aurreko 34 edizioetan, beste 192 pertsonak, elkartek eta erakundek jaso dute Sabino Arana saria.

Iñigo Urkulluk buru jardun zuen azken aldiz Eusko Jaurlaritzako Lehendakari gisa kultura-ekitaldian. Bertan, gogoratu zen sariak 35 urtean banatu direla etengabe 35 urtean eta Sabino Arana Goiri «gure sortzaile eta maisua» hil zela 120 urte igaro direla.

Ildo horretan, Zaratek adierazi zuen «Zygmunt Bauman soziologoak ‘modernitate likidotzat’ jotzen zuenak –joera horren ezaugarri bereizgarrienak ziurgabetasuna, mugikortasuna, indibidualismoa, balioen galera eta abar ditugu– dakarzkigun eragozpenen aurrean, gaurkoan, ‘modernitate solidoa’ aldarrikatu nahi dugu, horren bereizgarriak komunitatea, nortasun kolektiboa, sortzeko gaitasuna eta balioak direla».

Antton Valverde izan zen aurrenekoa saria jasotzen, eta eskerrak ematen zituen berak egiten dakien modurik onenean: pianoa joz eta abestuz. Horretarako, Esteban Urkiagaren Lauaxeta-ren «Neguko gaba» poema aukeratu zuen.

Jarraian, emakumezkoen Laboral Kutxa-Euskadi Fundazioaren enbaxadore Joane Somarribak, Naia Amondarain, Catalina Soto eta Eneritz Vadillo txirrindulariek jaso zuten saria, Aitor Galdós Euskadi Fundazioaren presidenteak lagundurik.

Somarribak adierazi zuen «txirrindularitza oso kirol zorrotza dela, lan, sakrifizio eta neke handia eskatzen duena», eta «hortzak estutu eta ametsak lortzeko indar guztiz borrokan aritzen diren emakume ausartei» eskaini zien saria. «Besarkada solidario eta feminista bero bat euren helburuak lortzen ahalegintzen diren emakume horientzat guztientzat. Adore, neskak, indarrak batuta gure amets guztiak lortuko ditugu eta!» esanez amaitu zuen.

Laura Igantzi Euskal Artzainak Ameriketan (EAA) elkarteko lehendakariak adierazi zuen saria poz handiz jasotzen dutela, «Ameriketan ibili diren euskal artzainek egindako lana aitortzen eta txalotzen delako». «Artzain guztiek asko esateko eta erakusteko dute haien emigrazioari buruz, eta gu ere, haien seme-alabak eta bilobak, oso harro gaude haiez», gaineratu zuen.

EAA elkarteko presidenteak gogora ekarri zuen artzainek gure ohiturei bizirik eutsi dietela hain urrun leku batean: «Harrotasun handiz esaten genuen euskaldunak ginela! Ameriketan, euskalduna pertsona langile, leial eta emandako hitza betetzen duen gizabanakotzat hartzen da. Beti esaten dut artzain haiek gure herriko enbaxadorerik onenak

izan direla. Guzti-guztiak, bizkaitarrak, gipuzkoarrak, arabarrak, iparraldekoak zein nafarrak, hizkuntza, ohitura eta kultura bera zerabilten euskal artzainak ziren. Hizkuntzari gagozkiola, ozen aitortu behar da euskarari oratu ziotela, batez ere, emakume euskalduna ondoan zutelarik», adierazi du.

Armando Llanos ikertzaile eta arkeologo arabarrak, Joxe Miel Barandiaranen ikaste izandakoak, bere bizitzako zazpi hamarkada inguru eskaini dizkio Euskal Herriko historiaurre hurbilaren eta protohistoriaren ikerketa arkeologikoari. Llanosen beste konpromisoetako bat ondare arkeologiko garrantzitsu eta aberats hori babesteko eta jagoteko ekina izan da. «Batuetan emaitza onak izan ditu, baina alde ilunak ere izan ditu, aztarnategi garrantzitsuak suntsitu zirela ikusita, haien kontserbazioa babesteko lege-babesik ez zegoelako», salatu zuen ikertzaile eta arkeologoak. Hala ere, Llanosen arabera, «balantzea aldekoa izan da, eta gaur egun kontserbaturik dauden aztarnategiak ugari direlako».

Javier Clemente izan zen Arriagako oholtzara igo zen azken sariduna. Mintzaldian, duela 40 urte Liga eta Kopa irabazi zituzten jokalarien aitortza egin zuen eta esan zuen Athleticen arrakastaren giltzarria dela «euskaldunok desberdinak garela». «Desberdinak gara ohituretan, gure historian eta besteekiko errespetuan» azaldu zuen.

Iranzu Calvo eta Javier Vizcaino kazetariak gidatu zuten ekitaldia eta Ana Artechek (arpa-jotzailea) eta Haizea Muñozek (sopranoa) girotu, «Donostiako hiru damatxo» eta «Maitia nun zira» interpretatuta.



# 10 BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

Sabino Arana Fundazioaren izaera pluralak aukera eman dio beste erakunde eta organismo batzuetako (Euskaltzaindia, Gogora, udalak, Helduak Elkartea, ikastetxeak...) ordezkarietako topaldiak egiten jarraitzeko, euren jardueratik sortutako gain.

2024an honako hauek izan dira:

otsailak 9 [ostirala]	Europako Mugimenduaren Espainiako Kontseilu Federalaren (CFEME) sorreraren 75. urteurrenean parte hartu genuen. Ekitaldi hura Parisko <i>Avenue Marceau</i> kalean egin zen, hau da, erbestealdiko Euzko Gobernuaren egoitzan eta, gaur egun, Cervantes Institutuak Frantziako hiriburuan duen egoitzan.
martxoak 16 [larunbata]	Castelaori Txurdinagako Europa parkean egindako omenaldian parte hartu genuen.
apirilak 14 [igandea]	Bediaga komandantearen familiak Saibigain mendiko batailan 1937an eroritako gudariei eta milizianoei antolatutako omenaldian parte hartu genuen.
apirilak 22 [astelehena]	Ander Manterolaren (Labayru Fundazioa) omenaldian parte hartu genuen.
apirilak 26 [ostirala]	Gernikako bonbardaketaren 87. urteurrenaren kariaz, sarraski hura gogorarazteko ekitaldietan parte hartu genuen.
apirilak 6 [osteguna]	Participación la XVII edición de la lectura ininterrumpida de clásicos con "Bilbao-New York-Bilbao" de Kirmen Uribe como protagonista. En el Teatro Arriaga.
ekainak 16 [igandea]	Gerra Zibileko gudari, miliziano eta emakumeentzako omenaldia, Artxandako «Aterpe 1936» eskulturaren aurrean.
ekainak 25 [asteartea]	Tere Verdes pasabidearen (SAFerako sarbidea lehengo Moraza plazatik) inaugurazioan parte hartu genuen. Bilboko Udalak antolatuta.
uztailak 14 [igandea]	Ikurrinaren 130. urteurreneko ekitaldietan parte hartu genuen.
irailak 22 [igandea]	Zirardamendin (Aia-San Migel-Elgoibar) hildako gudariei eta milizianoei egindako omenaldian parte hartu genuen. Elgoibarko Udalak antolatu zuen ekitaldia.
urriak 2 [asteazkena]	Noticias taldearen eta Iberdrolaren Hitz Sariak-Premios Palabra sariak banatzeko ekitaldian parte hartu genuen.

# 11 EMAITZEN BALORAZIOA

Historiaren ezagutzaren esparruan garatutako jardueraz gain, Sabino Arana Fundazioak ahaleginak egiten ditu bizi gareneko gizartearen parean egoteko eta eguneroko arazoei heltzeko.

Ildo horretan, azpimarratu behar dugu, aurreikusitako programa behar bezala bete eta gero, 2024an, gure gogoeta- eta eztabaida-mintzagunean gauzatutako jarduera bizia izan dela. Euskal Herriaren historian esanguratsuak izan diren urteurren batzuk oroitu ditugu; «Euskadi Think Next» gogoeta-prozesuari amaiera eman diogu; prozesu horren helburu nagusia Euskadiren oraingo eta etorkizuneko erronkei euskal gizartearekin batera heltzeko politika publikoak proposatzea eta eztabaidatzea izan da; eta XXI. mendean gure gizartea gehien kezkatzen duten gai eta errealitateen inguruan eztabaidatzen eta horiek aztertzen jarraitu dugu. Topaldiak egiatan interesgarriak izan dira, eta milaka pertsona eta hainbat arlotako pertsona ospetsu eta aditu batu dira saiootara.

Aurrez aurre antolatutako 56 hitzaldi, mintegi eta mahai-inguruetara 4.050 pertsona hurreratu dira (2.112 gizon eta 1.938 emakume). Sare sozialen bidez (zeharkako onuradunak), 215.922 pertsonak hartu dute informazioa (128.906 gizon eta 87.017 emakume).

Oso egoki irizten diegu atal honetan egindako jarduerari; izan ere, programatutakoren bat egin gabe geratu den arren, hasiera batean aurreikusi ez genituenak baino gehiago antolatu ditugu. Horietan guztietan, batez beste, 45-50 pertsona bertaratu dira.

Bestalde, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian eta Museoan gordetzen diren askotariko funtsak jendeari zabaltzeko, Sabino Arana Fundazioak hainbat erakusketa antolatu ditu, eta horietan material historiko batzuk erakutsi ohi dira, hala agiritegikoak, liburutegikoak, hemerrotekakoak edo museokoak.

«Nor gara gu?», «Mendirik mendi: Euzko Mendigoizale Batza.100 urte» eta «EAB. Emakumeak aberria eginez», erakusketak 4.405 pertsonak bisitatu dituzte (2.593 gizon eta 1.812 emakume). Emaizta horiek ere ontzat jotzen ditugu, erakusketok bost udalerrri berritan jarri direla aintzat harturik: Amorebieta-Etxanon, Zarautzen eta Laudion, baita Gasteizen eta Bilbon ere.

Ume eta helduentzako 101 tailerretan 1.022 mutikok/gizon eta 972 neskak/emakume eta 213 irakaslek parte hartu dute; eta unibertsitate-ikasleentzat antolatutako bi *masterclass* direlakoetan 9 gizon eta 68 emakumezko aritu dira. Kapitulu honetan azpimarratu nahi dugu urtetik urtera gero eta tailer gehiago galdatzen dituztela ikastetxeek.

Gainera, 2023ko amaieratik, *Escape room* edo ihes-aretoa daukagu, bi jolas eskaintzen dituena: «Alava sarea espedientea» eta «Ikurrinaren jatorrizko diseinua salbatzeko misioa». Ihes-areto honen berezitasuna dugu benetako gertaera historikoetan oinarrituta dagoela. Pedagogia egiteko beste modu bat, jolasaren eta aisialdiaren bidez Euskadiko historiako gertaera garrantzitsuak ezagutaraziz.



2024an, 90 gizon eta 126 emakume igaro dira ihes-aretotik. Kopuru hori handitu egingo da Sabino Arana Fundazioaren aisialdirako eta entretenimendurako gune berri hori ezagunagoa den heinean.

215 urteurren edo efemeride argitaratu ditugu, eta horien berri izan dute 302.011 erabiltzailek sareen bidez; 39 erreportaje egin dira DEIA egunkariaren *Historias vascas* sailean, eta 814.524 lagunek irakurri dituzte; hitzaldi, mintegi eta mahai-inguruetako 47 bideo argitaratu dira, eta 2.364 pertsonak ikusi dituzte, eta gure historialariek eta kolaboratzaileek 39 irratsaiotan parte hartu dute, 312.000 pertsona ingururengana iritsita.

Bestalde, HERMES pentsamendu eta historia aldizkariaren 79 ale argitaratu dira (hiru berri 2024an: «Xabier Arzalluz», «Euskal kulturaren erronkak» eta «Euskara biziberritzeko gakoena bila»). Elkarrizketa eta eztabaida ideologiko eta politikoa bultzatzeko tresna berria izateko asmoz sortu zen, eta *Hermes* sendotuz joan da, euskal esparru politiko, kultural, ekonomiko eta sozialetan oso ezaguna izatera iritsi dela. Gaur egun, 900 ale kaleratzen dira dira eta beste 200 banatzen dira online.

Bestalde, beste erakunde eta antolakunde batzuekiko harremanen esparruan, fundazio, memoria-elkarte, udal, aldundi, ikastetxe, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Euskaltzaindia, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergo, Helduak Elkarte, Burdin Hesiaren Oroimenezko Museo eta abarretako ordezkariekin adostutako ekitaldietan ere parte hartzen dugu.

Gure deialdiak irekiak direnez, euskal gizarte osoa da gure jardueren hartzaile eta partaide.

# 12 HIZKUNTZA- ETA GENERO-POLITIKEN ADIERAZPENA

Esan beharra dago Sabino Arana Fundazioaren helburu nagusietako bat emakumeen parte-hartzea bultzatzea eta genero-berdintasuna sustatzea dela fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki, jarduerak garatzen dituenean, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtsatzen duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu.

Aipatzekoa da, halaber, Sabino Arana Fundazioan euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa bermatzeko neurriak hartzen ditugula, euskararen dimentsio bikoitza gure herriaren kultura-ondarearen funtsezko zatitzat hartuta.

Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren arabera, «Ezagutzaren arloan oraindik urrats sendoak eman behar badira ere, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea murrizteko bidean, plan honen helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea izango da».

Ondorioz, proiektu hau bat dator ESEPe jasotzen duen helburu nagusiarekin, bai eta helburua lortzeko proposatzen dituen zeharkako ildoekin ere, hau da, «Euskararen aldeko motibazioa eta sustapena lantzea ez da zentzu hertsian hartu behar, zentzu zabalean baizik. Hizkuntza ikasteko motibazioan eragitea funtsezkoa da, noski, baina, horrekin batera, ezinbestekoa da euskara erabiltzeko argudioak eskaintzea, hizkuntzen erabileran gertatzen diren egoerak kudeatzeko estrategia bat eskaintzea, hizkuntzen kudeaketan garatzen diren eredu onak zabaltzea, soziolinguistikari buruzko oinarritzko azalpenak gizarteratzea, ezagutzatik hizkuntzaren erabilerarako jauzia egiten lagunduko duten jarduerak antolatzea, hizkuntzaren normalizazioaren arloan lidergoa izatea, eta abar».

# 13 ERANSKINA:

## 2024an EGINDAKO JARDUERAK

- urtarrilak 16** [asteartea] Sabino Arana Sarien XXXV. edizioaren aurkezpena.
- urtarrilak 28** [igandea] Sabino Arana Sarien ekitaldia. XXXV. edizioa, Bilboko Arriaga antzokian.
- urtarrilak 31** [asteazkena] Euskadi Think Next mintegia: «Emakumeak politikan». Parte-hartzaileak: Albert Hirschman Centre on Democracy Graduate Institute (Suitza) erakundeko Yanina Welp ikertzaile seniorra eta Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusia.
- otsailak 6** [asteartea] Euskadi Think Next mintegia: «Osasun-sistemaren etorkizuna Euskadin»- Parte-hartzaileak: Itziar Vergara, BioGipuzkoa zuzendari zientifikoa; Albert Planes, familia-mediku eta Kataluniako Lehen Mailako Arretako Foroko kidea, Familia eta Komunitate Medikuntzako Kataluniako eta Espainiako Elkarteko presidente ohia; eta Ander Urruticoechea, Deustuko Unibertsitateko Onkologikoko zuzendaria eta Osasun Zientzien Fakultateko dekanoa.
- otsailak 6** [astelehena] Koldo Anasagastiren «Aunque silben las balas, te escribiré» liburuaren aurkezpena.
- otsailak 9** [ostirala] Europako Mugimenduaren Espainiako Kontseilu Federalaren (CFEME) sorreraren 75. urteurrenean parte hartu genuen.
- otsailak 14** [asteazkena] *Bilboko lauza* tailerra.
- otsailak 15** [osteguna] Su artifizialen tailerra.
- otsailak 15** [osteguna] «Gamazada euskaro, napartar eta euskaldunen garaian» hitzaldia, Josu Chueca historialariaren eskutik.
- otsailak 16** [ostirala] *Bilbao eraikitzen* tailerra.
- otsailak 20** [asteartea] «Mendirik Mendi» hitzaldia Sancho el Sabio Fundazioan (Gasteiz), Aitor Miñambres Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenezko Museoko zuzendariaren eskutik.
- otsailak 21** [asteazkena] «Bioko uharteko ume galduak» dokumentalaren aurkezpena, Angie Carlota Lohoba dokumentalaren ekoizlearen eta dokumental hau egiteko Eria TB-ren soziologo aholkulari Edmundo Separen eskutik.
- otsailak 22** [osteguna] *Bilboko lauza* tailerra.
- otsailak 23** [ostirala] *Olatu birziklatuak* tailerra.
- otsailak 27** [asteartea] *Bilboko lauza* tailerra, Aldamiz-Apnabi ikastetxeko ikasleentzat, Sabin Etxean.

- otsailak 27** [asteartea] «EAB 100 urte. Emakumeak Aberria eginez» erakusketaren aurkezpena Amorebieta-Etxanon.
- otsailak 28** [asteazkena] Euskadi Think Next mintegia: «Gazteak Politikan». Parte-hartzaileak: Julen Karrion Muruetako alkatea; Egoitz Etxeandia, Irakasle Ekintzailearen Sari Nazionala; eta Marta Rosique, kazetaria, politologoa eta Diputatuen Kongresuko diputatu ohia.
- otsailak 28** [asteazkena] «Castelao y los hermanos de la libertad» dokumentalaren emanaldia, Xan Leira zuzendari, ekoizle eta gidolariarekin eta Iñaki Anasagasti «Castelao e os vascos» liburuaren egilearekin.
- otsailak 29** [osteguna] «Sustraiko eraldaketak munduan» mintegia, Oreki Fundazioarekin lankidetzan. Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkean.
- otsailak 29** [osteguna] *Lauburua* tailerra, Aldamiz-Apnabi ikastetxeko ikasleentzat, Sabin Etxean.
- martxoak 5** [asteartea] «Eliza Euskadin» zikloa. «Añoveros auzia, homilia bat baino zerbait gehiago» hitzaldia, Anabella Barroso Bizkaiko Elizaren Historia Artxiboko zuzendariaren eskutik.
- martxoak 5** [asteartea] *Warhol* tailerra.
- martxoak 6** [asteazkena] *Kolore hiperkonektatuak* tailerra.
- martxoak 7** [osteguna] *Warhol* tailerra.
- martxoak 8** [ostirala] *Lauburua* tailerra, Aldamiz-Apnabi ikastetxeko ikasleentzat, Sabin Etxean.
- martxoak 11** [astelehena] «Zornotzako emakume abertzaleak aberria eginez» hitzaldia, «EAB. 100 urte» erakusketaren esparruan.
- martxoak 12** [asteartea] «Expedición Groenlandia» dokumentalaren emanaldia, Zigor Egia alpinista eta Euskal Mendizale Federazioko (EMF-FVM) presidentearen eskutik.
- martxoak 14** [osteguna] «EAJren politika europazalea erbestean» hitzaldia, Leyre Arrieta ikertzaile eta Deustuko Unibertsitateko irakasle titularraren eskutik.
- martxoak 15** [ostirala] *Intxaurra* tailerra.
- martxoak 16** [larunbata] Castelaori Txurdinagako Europa parkean egindako omenaldian parte hartu genuen.
- martxoak 18** [astelehena] *Lauburua* tailerra.
- martxoak 19** [asteartea] *Ikurrina* tailerra.
- martxoak 19** [asteartea] «EAB 100 urte. Emakumeak Aberria eginez» erakusketaren aurkezpena, Zarautzen.
- martxoak 20** [asteazkena] *Bilboko lauza* tailerra.
- martxoak 21** [osteguna] Euskadi Think Next mintegia: «Giza garapen iraunkorra eta zaintza-sistemaren etorkizuna», Tabakalera (Donostia). Parte-hartzaileak Imanol Pradales EAJ-PNV alderdiaren lehendakariagaia; Juan Jose

Ibarretxe, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria 1999tik 2009ra eta Agirre Lehendakaria Centerreko egungo presidentea; Matia Fundazioko etxez etxeko eta komunitateko arretako zuzendaria, Maider Azurmendi; Fidel Molina Ortega, Lares Euskadiko idazkaria; eta Claudia Favela, Ignacio Ellacuria Fundazioko Torre de Babel topaketa- eta ahalduzko-taldeko koordinatzailea.

- martxoak 21** [osteguna] *Bilboko lauza tailerra.*
- martxoak 22** [ostirala] *Lauburu tailerra.*
- apirilak 12** [ostirala] «EAB 100 urte. Emakumeak Aberria eginez» erakusketaren aurkezpena Laudioko Kultur Etxean.
- apirilak 14** [igandea] Bediaga komandantearen familiak Saibigain mendiko batailan 1937an eroritako gudariei eta milizianoei antolatutako omenaldian parte hartu genuen.
- apirilak 16** [asteartea] *Taumatropoa tailerra.*
- apirilak 18** [osteguna] *Bilboko lauza tailerra.*
- apirilak 19** [ostirala] *Bilboko lauza tailerra.*
- apirilak 22** [astelehena] Ander Manterolaren (Labayru Fundazioa) omenaldian parte hartu genuen.
- apirilak 25** [osteguna] «Leizaolak Gernikara egindako bisita klandestino: 50 urte» solasaldia, Javier Chalbaud, Pedro de la Sota eta Fede Bergaretxeren eskutik. Moderatzailea: Koldo San Sebastian.
- apirilak 26** [ostirala] Gernikako bonbardaketaren 87. urteurrena gogoratzeko ekitaldietan parte hartu genuen.
- apirilak 30** [asteartea] *Hermes aldizkariaren 77. zenbakia argitaratu zen.*
- maiatzak 8** [asteazkena] «Egungo krisi humanitarioak: Gazako kasua», Raquel Martí UNRWA (Ekialde Hurbileko Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia) Espainiako zuzendari exekutiboaren eskutik.
- maiatzak 10** [ostirala] «Nola lagundu krisian dagoen mundu batean?» mintegia. Parte-hartzaileak: David Noguera, Mugarik Gabeko Medikuek erakundeko langile humanitario eta presidente ohia; Joana Abrisketa, Ekintza Humanitarioko Nazioarteko Masterreko zuzendaria (Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua - Deustuko Unibertsitatea); eta Manuel Sánchez-Montero, *Acción contra el hambre* Eragin eta Harreman Instituzionalen zuzendaria.
- maiatzak 10** [ostirala] *Bilboko lauza tailerra, Aldamiz-Apnabi ikastetxeko ikasleentzat, Sabin Etxean.*
- maiatzak 13** [astelehena] Iñaki Zabaleta Gorrotxategi UPV/EHUko Filosofia saileko irakaslearen «Nazioa eta hizkuntza Humboldtten pentsamenduan» liburuaren aurkezpena.
- maiatzak 14** [asteartea] *Lauburu tailerra, Aldamiz-Apnabi ikastetxeko ikasleentzat, Sabin Etxean.*



<b>maiatzak 15</b> [asteazkena]	<i>Kartoizko ganbera</i> tailerra.
<b>maiatzak 15</b> [asteazkena]	«Eliza Euskadin» zikloa. «Emakumeak eta eliza Bizkaian. Erronkak eta aukerak» hitzaldia, Estrella Moreno Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraltza Institutuko zuzendariaren eskutik.
<b>maiatzak 16</b> [osteguna]	<i>Kartoizko ganbera</i> tailerra.
<b>maiatzak 17</b> [ostirala]	«Mendirik Mendi. Euzko Mendigoizale Batza. 100 urte» erakusketaren aurkezpena, Sabin Etxean.
<b>maiatzak 21</b> [asteartea]	«Euskal Mendizale Federazioa. 100 urte - Euskal Herriko Mendizale Federazioa. 100 urte», Zigor Egia alpinista eta Euskal Mendizale Federazioko presidentearen eta Ricardo Hernani Euskal Mendizale Federazioko presidenteordearen eskutik.
<b>maiatzak 21</b> [asteartea]	<i>Hama Beads</i> tailerra.
<b>maiatzak 22</b> [asteazkena]	Euskadi Think Next mintegia: «Demokraziaren etorkizuna, nora goaz?». Parte-hartzaileak: Manuel Arias Maldonado politologo, idazle eta Politika Zientziako katedraduna Malagako Unibertsitatean; Ramón González Ferriz kazetari, idazle eta analista politikoa; eta Eva Silván politologoa. Irekiera ekitaldia: Oihane Agirregoitia EAJ-PNVren Europako hauteskundeetarako hautagaia.
<b>maiatzak 22</b> [asteazkena]	<i>Arboglifoa</i> tailerra.
<b>maiatzak 23</b> [osteguna]	<i>Nur</i> tailerra.
<b>maiatzak 28</b> [asteartea]	<i>Bilboko lauza</i> tailerra. Iralako Eguneko Zentroa. Sabin Etxea.
<b>maiatzak 30</b> [osteguna]	<i>Bilboko lauza</i> tailerra. Iralako Eguneko Zentroa. Sabin Etxea.
<b>ekainak 6</b> [osteguna]	Klasikoen irakurketa jarraituaren XVII. edizioan parte hartu genuen: Kirmen Uriberen «Bilbao-New York-Bilbao» liburua, Arriaga antzokian.
<b>ekainak 14</b> [ostirala]	<i>Bilboko lauza</i> tailerra. Zorrotzako Eguneko Zentroa. Sabin Etxea.
<b>ekainak 16</b> [igandea]	Gudariei, milizianoei eta Gerra Zibileko emakumeei omenaldia Artxandako «Aterpe 1936 (Aztarna)» eskulturaren aurrean.
<b>ekainak 25</b> [asteartea]	Tere Verdes pasabidearen (SAFerako sarbidea lehengo Moraza plazatik) inaugurazioan parte hartu genuen. Bilboko Udalak antolatuta.
<b>ekainak 26</b> [asteazkena]	Euskadi Think Next mintegia: «Politikaren profesionalizazioa».
<b>ekainak 28</b> [ostirala]	<i>Lauburua</i> tailerra, Aldamiz-Apnabi ikastetxeko ikasleentzat, Sabin Etxean.
<b>uztailak 3</b> [asteazkena]	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin hitzaldi-zikloa: «Partzuergoaren jatorria eta Bizkaiko egoera sozioekonomikoa 1970-1980 hamarkadan», Daniel Fernandez Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Zerbitzu Teknikoen zuzendari ohiaren eskutik.
<b>uztailak 11</b> [osteguna]	«Ikurrinaren 130. Urteurrena» hitzaldia, Juan Jose Gonzalez ikertzaile, dokumentalista, bexilologo eta heraldistaren eskutik.

<b>uztailak 14</b> [igandea]	Ikurrinaren 130. urteurreneko ekitaldietan parte hartu genuen.
<b>uztailak 15</b> [astelehena]	SAF, lehen fundazioa gardentasun maila gorena eskuratzen.
<b>uztailak 22</b> [astelehena]	Jon Mikel Olabarrieta Venezuelako EAJ-PNVren Lurralde Kanpoko Batzordeko idazkari ohiari harrera Sabin Etxean.
<b>uztailak 23</b> [asteartea]	EHUko Udako Ikastaroen 43. edizioan parte hartu genuen.
<b>uztailak 24</b> [asteazkena]	<i>Hermes</i> aldizkariaren 78. zenbakia (Kultura) argitaratu zen.
<b>irailak 12</b> [osteguna]	«Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa» hitzaldi-zikloa. «Udallerriak eta eskualdeak apurka-apurka Partzuergoan kidetzea: Bilbo Handitik Busturialdera».
<b>irailak 19</b> [osteguna]	«Mendirik Mendi. Mendigoizaleak, mendizaleak eta gudariak» hitzaldia, Aitor Miñambres Berangoko Burdin Hesiaren Oroimenezko Museoko zuzendariaren eskutik.
<b>irailak 22</b> [igandea]	Zirardamendin (Aiestia-San Miguel-Elgoibar) hildako gudariei eta milizianoei omenaldia. Elgoibarko Udalak antolatutako ekitaldia.
<b>urriak 2</b> [asteazkena]	Noticias taldearen eta Iberdrolaren Hitz Sariak-Premios Palabra sariak banatzeko ekitaldian parte hartu genuen.
<b>urriak 8</b> [asteartea]	«Ekintzaile gazteak» hitzaldi-zikloa, modako diseinatzaile gazte Eder Aurreren eskutik.
<b>urriak 11</b> [ostirala]	«Ehunak kontserbatzeko euskarriak, prozedurak eta materialak» mintegia (Masterclass-a), Geografia eta Historian lizentziadun, prebentziozko kontserbazioan aditu eta ehungintzan espezializatu Soledad Santistebann eskutik.
<b>urriak 15</b> [asteartea]	«Emakume Apartak» zikloa. «Saregileak eta neskatilak, desagertzeaz dagoen lanbidea?» hitzaldia.
<b>urriak 23</b> [asteazkena]	«Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa» hitzaldi-zikloa. «Saneamendu plan integrala», José M <sup>a</sup> Villanueva del Casalen eskutik.
<b>azaroak 5</b> [asteartea]	«Artxibo historikoen inguruko prestakuntza eta ikerketa» mintegia.
<b>azaroak 13</b> [asteazkena]	«Euskal ondasun eta erakunde komunen kudeaketa: tradizioa eta gaur eguneko erronkak». Parte-hartzaileak: Andoni Eizagirre, Roldan Jimeno, Patxi Juaristi, Jon Barrutia, Gorka Lazkano eta Markel Onaindia.
<b>azaroak 14</b> [osteguna]	Hitzaldi-zikloa <i>Helduak</i> elkartearekin lankidetzan. Javier Larrea, OPRAko presidentea.
<b>azaroak 19</b> [asteartea]	Euskal kulturaren memoria: «Euskal idazleak». Xabier Altzibar, Larritz Ariznabarreta eta Jasone Osororen eskutik.
<b>azaroak 21</b> [osteguna]	«Itsasoa, berdintasun-lurraldea» hitzaldi-zikloa. «Antonio Candina, kapitaina eta ontzi-jabea», Julian eta Javier Garaizar Candinaren eskutik.
<b>azaroak 22</b> [ostirala]	Objektuen bizitza museoan (UPV/EHUrekin lankidetzan).

- azaroak 26** [asteartea] Hitzaldi zikloa Helduak taldearekin. «Udalaren Gizarte Zerbitzuak: mendetasun-egoeran dauden pertsonen prebentzioa eta laguntza», Juan Ibarretxe eta Asier Alustizaren eskutik.
- azaroak 27** [asteazkena] Hitzaldia Iruñean: «Gure industriaren oraingo eta etorkizuneko erronkak», Mikel Irujo eta Mikel Jauregi Nafarroako eta EAEko Industria kontseilari eta sailburuaren eskutik, hurrenez hurren. Irujo Etxea Elkartearekin lankidetzan.
- abenduak 10** [asteartea] «Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa» hitzaldi-zikloa. «Azpiegituren plangintza, Bizkaiko hiri-uraren etorkizuneko erronkei erantzuteko», Arantxa Sanchezen eskutik.
- abenduak 12** [osteguna] «Teknologiak erraztutako sexu-indarkeria: indarkeria berriak, arazo berriak» hitzaldia, Elisa Garcia Mingo Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Soziologiako irakasle eta ikertzailearen eskutik.
- abenduak 14** [larunbata] «Alberto Onaindiaren pentsamendu humanistatik abiatuta, bizikidetzaren demokratikoaren egungo prozesurako iradokizunak» jardunaldia, Lasarte-Orian. Hitzaldi nagusia Iñaki Goigana historialari eta SAFeko artxibozainaren eskutik.
- abenduak 18** [asteazkena] «Aurrera ala atzera? GAKO BERRIEN bila» mintegia, Euskaltzaindiarekin lankidetzan.
- abenduak 19** [osteguna] «Engrazio Aranzadi *Kizkitza*. La siembra de una patria-Aberri baten Ereintza» hitzaldia. Hizlaria: Patxi Agirre, Historia Garaikidean doktorea.
- abenduak 30** [osteguna] *Hermes* aldizkariaren 79. alea argitaratu zen.